

## Herririk Herri | 8

Tentsioa Durangoko udalbatzarrean  
EAJren eta oposizioaren artean



## Berbaz | 10 - 11

Berbaro taldeak 'Euskarak 365 egun'  
kanpaina jarri du martxan bigarrenez

## Kirola | 22

Bizkaia Kirolak Saria eman diote  
Bidezabal Atletismo Klubari

## ERREPORTAJEA | 2-3

# Etxe barik gelditzeko arriskuan



Carmen Morales eta Jerry Okem  
Durangoko San Fausto auzoan bizi dira,  
eta beraien etxeak galtzeko zorian daude.

## Durangaldea | 8

140.000 euroko laguntza sare  
industrialia hobetzeko

## Zaldibar | 6

Aurrekontuen lehentasunak  
herritarrek ezarriko dituzte

## Berriz | 8

Edukiontzia marroiak ipiniko  
dituzte Berriziklatu indartzeko

## Otxandio | 8

Herri-Ola egitasmoa  
herritarrekin egokituko dute

## DURANGO | 5

### ONA Irango programa nuklearragaz lotu dute

Irango programa Nuklearrera  
zazpi makina bidaltzea leporatu  
dio Zerga Agentziak Durango-  
goko ONA enpresari. Informa-  
zioa ezagutzera eman eta gero,  
ONAK gezurtatu egin du Irane-  
gaz "ezelako kontrabando sarean  
sartuta" dagoenik.

# GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR



Baimendutako  
harategia  
Euskal Okela  
Carnicería  
autorizada

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO

ERREPORTAJEA

## Durangoko bizilagun bi etxea galtzear

Durangoko kaltetu bi bankuekin irtenbideren bat negoziatzen dabilta, Sendia elkartearen bidez

**E**txe kaleratze bakoitzaren atzean drama pertsonal bat dago, eta Durangaldea ez dago errealitate sozial horretatik kanpo. Carmen Morales eta Jerry Oken euren etxeak galtzeko arriskuan daude. Durangoko San Fausto auzoan bizi dira, eta nork bere etxea gal dezake. Sendia elkarte-kideak dira biak. Elkarte horretan aholkularitzaz gainera, euren egoera bizi duten beste lagun batzuen berotasuna sentitu dute.

azaldu zuen berehala. Rosa de la Fuente Sendia elkarte-ko arduradunak dioenez, adierazpen hori zein beste banku batzuen berba hutsetan geratu ez dadin, elkarte-ko kideen epaiketara joaten dira neurria betearazteko: "Informazio nahasgarria bolo-bolo dabil eta jendeak ez daki zer egin". Aste honetan bertan, familia baten etxe kaleratzea atzeratzea lortu dute Burlatan (Nafarroa).

**Datu kezagarriak**

Datuak esanguratsuak dira. Euskal Autonomia Erkidegoan zortzi etxe kaleratze egiten dituzte egunean. Krisia hasi zenetik EAEn 8.000 familia etxe barik geratu dira. Espainiar estatuan berriz, 2008tik hona 400.000 etxe kaleratze egin dituzte.

Etxe kaleratzeen kontrako elkarteek aholkularitza eskatzea gomendatzen diete kaleratu guztiei. Etxe kaleratzeen kasuen %70 babes juridikorik gabe gertatzen dira, hau da, kaltetuen erdiak baino gehiagok ez du auzitegiara jotzen kasua galdutzat ematen dutelako, eta ez dute inolako aholkularitza juridikorik eskatzen. Gainera, etxe kaleratze mota ugari daude, baina azken datuen arabera, %60 alokairuan bizi diren pertsonenak dira. ■ J. Guenetxea

**Durangoko San Fausto auzoan bizi dira, eta nork bere etxea gal dezake**

**Krisia hasi zenetik Euskal Autonomia Erkidegoan 8.000 familia etxe barik gelditu dira**

Sendiako kideek diotenez, "talde lana eta mobilizazioa oso garrantzitsuak dira hainbeste familiak bizi dugun egoera ikusezintasunetik atera eta gure aldarrikapenak kaleratzeko".

Amaitu Egañaren kasuak agerian utzi du familia askoren larritasuna. Kutxabankek etxe kaleratze traumatikorik ez zuela egingo



Epaitegien aurrean kontzentrazioa, etxe kaleratze bat geldiarazteko. Argazki-press

## "74 familia bota dituzte beraien etxeetatik Durangalde inguruan"

Stop Desahucios elkarte-ko talde bat sortu gura dute Durangon

Bere izena publiko egin gura duen Durangoko beste kaltetu bat Stop Desahucios elkarte-koa da. Durangon taldea sortu gura du, baina jendeak bere egoera ezagutzera emateko beldurra duela azaldu du. Hala ere, esan duenez jakin badaki Durangaldean kaltetu asko daudela: "Gure inguruko herrietan 74 familia bota dituzte beraien etxeetatik".

Kaltetu honi langabezian geratu eta dirua amaitu zaio. Hainbat urte enpresa berean lanean ibili eta gero, kale gorrian geratu zen. Lana topatu ezinik etsita, Aitziber Irigoras alkatearengana eta oposizio-ko alderdi politikoengana jo du. "Niregatik ezin duela ezer egin esan dit alkateak. Curriculum eman dut udal bulegoan, baina ezer ez. Lan

bat baino ez dut gura. Berdin zait zertan".

Familia osoa oso txarto pasatzen ari dela dio durangar honek. Etxea salgai ipini dute, baina ez ei dago saltzeko modurik: "Hipoteka ordaintzeko beste diru ematen didanari etxea saltzeko prest egon arren, ez da inor etortzen etxea ikustera ere. Orain inork ez du etxerik erosi gura".

## Etxe kaleratzeak aplikatuz gero, udal fondoak erretiratzeko abisua

Durangoko Udalak etxe kaleratzeak geratzeko eskatu du mozio bidez

Durangoko Udalak etxe kaleratzeak geratzeko mozioa onartu zuen martitzeneko batzarrean. Onartutako neurriek zaildu egingo dituzte prozedura horiek; eguaztenean bertan, negoziazio bat egon zen durangar baten eta banketxe baten artean.

Etxe kaleratzeak geratzeko mozioa Bilduk, PSE-EEk eta Aralarrek aurkeztu zuten, eta EAJk ere babestu egin zuen. PP bakarrik agertu zen kontra. Etxe kaleratzeak aurrera errotan dituzten finantza erakundeetatik fondoak erretiratzeko konpromisoa hartu du Durangoko udalbatzak. Prozedurak geratzeko eskatu die ban-

ketxeei, batez ere, Kutxabanki, daukan loturagatik. Udalak bankuekin daukan hartu-emanak errebisatuko ditu, etxe kaleratzeekin daukaten jarreraren arabera. Jabetzakoez gainera, alokairuan dauden ohiko etxebizitzaren kasuan ere hala egiteko eskatu du.

Onartutako mozioak Kutxabankek -eta ahal bada beste batzueguz ere bai- hitzarmen bat

**Bankuekin daukan hartu-emanak errebisatuko ditu, daukaten jarreraren arabera**

sinatuko dela dio. Hala, banketxeek daukaten etxe hutsak alokairu sozialean emateko programa batean sartuko lirakeke.

Etxe galtzeko arriskua daukaten herritarrak informatu eta babestuko ditu udalak. Ez du etxe kaleratzeetan lagunduko, eta horretarako prest ez dauden beharginak babestuko ditu. Banketxe bakoitzaren jarrera publiko egitea ere onartu dute.

Gogoan izan behar da, M15 mugimenduak sustatuta, bankuekin hipoteka praktiketarako "akordio etikoa" sinatzen ahalegintzeko konpromisoa hartu zuela udalak uztailen. ■ M. O.



Pilar Riosek (PSE-EE) aurkeztu zuen mozioa martitzenean.



Elkarrizketak >



## “Sendia elkartean lan itzela egiten dabilta gu lakoei laguntzeko”

Senarrarengatik bananduta eta gutxitasun psikikoa duen alaba batekin, Carmenek ezin dio bankuko kredituari aurre egin

**Zer egoeratan zaudete?**

Gutxitasun psikikoa duen Elena alabagaz bizi naiz etxean. Momentu honetan bankuarekin negoziatzen gabiltza kreditua zelan ordaindu dezakedan erabakitzeke. 800 euro hilean ordaintzen ibili naiz etxea konpontzeko eskatu nituen lehen 25 milioi pezeta ordaintzeko. Nire izekoren etxea heredatu egin nuen, baina oso egoera txarrean zegoen eta konpondu egin behar izan nuen.

**Kreditua nortzuk eskatu zenu-ten?**

Senar ohiaren eta nire izenean dago. Banandu egin ginen, eta orain ez dit laguntza pasatzen eta ez du kredituaren bere zatia ordaintzen, berak ere zailtasun ekonomikoak dituelako.

**Bankuak zeozer proposatu dizue?**

Bai, bost urtean hileko kuota jaistea eta ondoren kreditua etxebizitzarekin ordaintzea. Hau da, bost urtean ordaindu eta gero, etxebizitza barik gelditza

proposatzen ziguten. Guk beste bide batzuk daudela uste dugu, eta negoziatzen gabiltza. Sendia elkartearen laguntzarik barik, batek daki bost urte barru etxea entregatzeko tratua onartuko genuen.

**Zuek zein irtenbide ikusten duzue?**

Etxea alokairuan jartzea eta diru horrekin kreditua ordaintzea. Baina, lehenengo senar ohiagaz adostu behar dugu eta gero bankuagaz.

“Alabak daroa txarren, gaixotasunagaz ardura handitu egiten zaiolako”

**Bankuagaz zein hartu-eman duzue?**

Kreditua La Caixan daukagu eta behin eta berriro deitzen digute. Estutu egiten gaituzte, baina guk esaten diegu negoziatu gura badute Sendiara deitzeko.

**Zelan jarri zarete hartu-emanen Sendia elkarteagaz?**

Durungaldeko gizarte zerbitzuek esan ziguten irtenbideren bat topatzeko elkarteagaz bat egin eta aholkularitza bilatzeko. Talde honetan aurrera egiteko indarra topatu dugu. Guri asko lagundu digute, eta ez aholkularitzan bakarrik. Lan itzela egiten dabilta gu lako egoeran dagoen jendeari laguntzeko.

**Non elkartzen zarete?**

Barikuetan Bilbon batzen gara. Hasieran hogeita bost familia elkartzen ginen, eta orain berrogeita hamar baino gehiago joaten gara batzarretara. Taldea handitzen eta handitzen doa.

**Zelan bizi duzue egoera hau alabak eta zuk?**

Egoera gaitza bizitzen ari gara. Nire alabak daroa txarren, duen gaixotasunagaz ardura handitu egiten zaiolako. Ni ere txarto pasatzen ari naiz, bai niregatik, baita beragatik ere. Ea irtenbidea bilatzen dugun laster, eta arazoa konpontzen dugun.

## “Lan barik geratu nintzen eta orain ezin diot kredituari aurre egin”

Nigeriatik bizitza hobeago bat topatzera etorri zen Jerry Okem. Orain etxea galtzeko zorian, ezin du bere familia hona ekarri

**Zure etxe kaleratzeak data jarri-ta du.**

Bai, azaroaren amaierarako jarri dute data. Idatzi bat aurkeztuko dugu kalean gelditu ez nadin. Kaleratzea etetea da asmoa. Abenduaren amaierara arteko epea eskatu dugu arazoa konpontzeko.

**Lana galtzean hasi ziren zure arazoak.**

Bai, 13 urte daramatza lanean. Lehenengo Palma de Mallorcan egin nuen lan eta ondoren Abadiñoeko enpresa batean. Lan barik gelditu nintzen eta orain ezin diot kredituari aurre egin. 2004an eskatu nuen 35 urterako kreditua. Orain subsidioa kobratzen ari naiz.

**Non duzu kreditua?**

Banko Santanderren. Dagoeneko adjudikatu du nire etxea, hau da, dagoeneko etxea berea da.

**Kasua eroateko laguntzarik jaso duzu?**

Durungaldeko Amankomunazgoko Gizarte Laguntzailearengana

na joan nintzenerako pisuaren subasta martxan zegoen. Bertan esan zidaten Sendia elkarteagaz bat egin eta aholkularitza eskatzeko.

**Zelan jarri zinen beraiekin hartu-emanen?**

Azaroaren 9an joan nintzen Bilbora lehenengoz batzar batera, Amaia Egañak bere buruaz beste egin zuen egunean. Nahasmen handia zegoen, baina batzarra egin genuen eta nire paper guztiak eman nizkien. Goizeko 03:00ak arte egon ginen.

“Nire etxea Banko Santanderrek adjudikatu du”

**Emaztea eta seme-alaba bi dituzu Nigerian.**

Emaztea eta seme-alabak nirekin Durangora etortzeko asmoa genuen, baina orain egoera honetan ez da posible. Ezin diet hara laguntzarik bidali. Emaztearen aita dabil haiei laguntzen.

Nire herrian, ez baduzu dirurik gosea pasatzen duzu. Haiek ere txarto pasatzen ari dira hemen gertatzen ari den honekin guztiarekin.

**Lana topatzeko ez da sasoirik onena.**


Lana topatuaz gero, kreditua ordaintzeko aukera izango nuke. Ez dut lanerako beldurrik. Edozertan jardungo nuke. Sukaldeko eta tabernako laguntzaile aritu naiz, Palma de Mallorcan. Industrian ere jardun dut. Hala ere, momentu honetan ez dago lana topatzerik.

**Arazo honek zer irtenbide izan dezake?**

Pisuko logela bi alokatzea pentsatu dut, irabazi dezakedan diru horrekin kreditua ordaintzeko. Hala ere, bide horretatik joan gura izanez gero ere, denbora behar dut arazoa konpontzeko.

**Zelan bizi duzu egoera?**

Horrela ez dago etorkizunik. Saminduta nago egoera honekin.



# Gremioen gida

## ELEKTRONIKA

**URBASA** ELEKTRONIKA  
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA  
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango  
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80  
urbasa@urbasatel.com  
www.urbasatel.com

**Panasonic**

Televis  
Instalazioak  
Ongarria

## AROTZERIA


**EGUIA** S.L.

**AROZTEGIA**

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46  
Faxa: 94 605 69 06  
**Mug.: 669 655 169**  
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com



## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.  
- Pinturak eta pintura apaingarria.  
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz  
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com



## GARBIKETAK

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfombra

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

## ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

**PUJANA**  
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

## ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO  
Tel.: 94 661 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtiaga.sl@terra.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



## LORAZAINTZA

*Jardines*  
**Patxi**  
*Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com



**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com



**Ubide**  
iturgintza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza



**DURANGO**

# Irango programa nuklearragaz ez duela loturarik dio ONAk

Irango programa nuklearrera zazpi makina bidaltzea leporatu diote

**D**urangoko ONA electroerosion enpresak prentsa ohar baten bidez adierazi duenez, "enpresak nazioarteko akordioak zorrotz betetzen dituela bermatzen dugu". Ogasun Ministerioak martitzenean publiko egindako informazioaren ostean eman ditu ONAk adierazpenok. Ministerioaren arabera, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak Irani ezarritako nazioarteko blokearen kontra egitea egotzita, makineria kontrabandoan zihar-

duen sare bat desegin du. Makineria Iranera bidali duen enpresak Durangon duela egoitza jakitera eman du Zerga Agentziak. ONAren izena publiko egin ez arren, azaroaren 13an enpresan egindako miaketaren irudiak publi-

**Zerga Agentziaren berbatan, legez kanpoko jarduera estaltzeko enpresa bat sortu zuten Turkian**

ko egin ditu. Azaldu dutenez, hainbat material informatiko eta dokumentazio atzeman zuten. Diotenez, iruzurra estaltzeko, Turkian sortutako enpresa baten bidez bidaltzen zituzten makinak. Bidalketa horien arduradunei kartzela zigorra zein sei milioi eurora arteko isuna ezar diezaiekete. Bidaltako zazpi makinek 955.000 euroko balioa zuten, beraz, isuna sei bider handiagoa izan daite.

Prentsa oharrean esaten dutenez, Kakum operazioaren lehen

fasean, 2012ko lehenengo hilabeteetan, Durangoko enpresak ekin-tza "susmagarrietan" ziharduela konturatu zen. 2009ko irailean enpresa susmagarri horri turbinen helizeak egiteko zazpi makina bidaltzeko lizentziari ezezkoa eman zioten. Ezezko horren aurrean, Ministerioko arduradunen esanetan, Irango enpresagaz sare bat sortu zuten. Zerga Agentziaren berbatan, legez kanpoko jarduera estaltzeko enpresa bat eratu zuten Turkian: "Aduanan, helmuga Turkia zen, ez Iran".

**Onaren erantzuna**

Durangoko ONA electroerosion enpresak (makina erreminta ekoizten du) gezurtatu egin du Irangaz ezelako kontrabando sarean sartuta dagoenik. Poliziak kasua-

ri 'Kakum operazioa' izena eman dio. Enpresako arduradunek jakinarazi dutenez, "saldu diren makinak estandarrak dira, ez dute ekipamendu berezirik, eta enpresak 2005etik hona hainbat merkatutan eta Europa, Asia eta Amerikako hainbat sektore industrialetan saldu ditu, betiere, dagozkien baimenekin". Ekoizten duten produktuen %80 Espaniatik kanpora esportatzen dutela dio.

Irango esportazioei buruz honako hau dio enpresak: "Iranera zein beste edozein herrialde-tara egindako salmentetan, ONAk beti eskatzen ditu administrazioetan dagozkion arau-baimenak. 2009an baimen bi eskatu ziren Irango bezero birentzat, eta hiletan itxaron zuten administrazioen erantzuna. Baimen bat eman egin zuten eta, ondorioz, makina baimenagaz esportatu zen Iranera. Beste baimena ez zuten eman eta ondorioz, ez zen operazio hori burutu".

Esportatzeko baimen bako makinak "ez ziren neurritan egindako modeloak". Estandarrak zirela diote "ekipamendu berezi gabe-koak, gure katalogoan eskaintzen ditugun artean sinpleenak". Makina horiek Irangoa ez den beste bezero bati hornitu zizkietela diote, antzeko ezaugarriak zituen eskaera bat egin zutelako; "beti ere nazio mailako eta nazioarteko araudiak betez". ■ J.D. / J.G.



Azaroaren 13an Zerga Agentziak enpresan egindako miaketaren irudiak.

# Tentsioa sortu da asteon EAJren eta oposizioaren artean

Oposizioaren ustez, agerian dago EAJk gobernatzeko duen gaitasunik eza

Aste beroa bizi izan da Durangoko udaltxean. Bilkura bi egin dituzte, astelehenean eta martitzenean, eta tentsioa sortu da gobernu taldearen eta oposizioaren artean. Astelehenekoa ez ohiko batzarra izan zen, eta oposizioak bultzatu zuen deitzera, euren gai bi aurrera ateratzeko asmoz: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko diagnostiko parte-hartzailerik egitea, eta Dendak Bai elkar-teagaz hitzarmena sinatzea. "Agerian geratu da EAJk herri hau gobernatzeko daukan gaitasunik eza", esan zuten Bilduk, PSE-EEK eta Arala-

rrek. Diote EAJk 9 milioiko erreten-tzioa egin duela, eta horren barruan merkatarientzako 40.000 euro ei zeuden.

Kreditu aldaketa bidez, partida bat gai horietara bideratzea onartu zuten Bilduk, PSE-EEK eta Aralarrek gehiengoz, eta EAJk eta PPK kontra egin zuten. Baina, ez

**Alkateak ei dauka eskumena kreditu aldaketa horiek egin ala ez erabakitzeko**

dirudi garatuko direnik. Gaiak lantzu aurretik, Aitziber Irigoras alkateak idazkariak egindako txosten bat plazaratu zuen. Alkateak ei dauka eskumena kreditu aldaketa horiek egin ala ez erabakitzeko. Goiztidi Diazek (EAI) esan zuen alkateak zilegitasun osoa daukela bere eskumenak babesteko. Arrate Elkorok (Bildu), erantzun zion: "Zilegitasunez egingo ditu gauzak, baina herriaren gehiengoaren kontra; Hitlerrek ere zilegitasuna bazeukan". Alkateak, haserre, halako konparaketarik ez ziola onartuko esan zion. ■ M. O.

# 38.000 euroko laguntza eta lokal bat emango dizkio udalak Dendak Bai-ri

Egoitza administratiboa izango den lokala Askatasun etorbidean dago

Astelehenean ez, baina martitzenean bai. Udalak hitzarmena sinatuko du Dendak Bai merkatariek elkar-teagaz-lehengoz +Dendak eta Durango Bai-ren fusioa-. Hala, 38.000 euro eta lokal bat jasoko ditu elkar-teak. "Udalek dagoen jarduera ekonomiko nagusia dela kontuan hartuta" lotuko du akordioa udalak. Dirua, sektorea sustatzeko ekin-

tzak egiteko erabiliko du elkar-teak. Egoitza administratiboa izango den lokala Askatasun etorbidean dago, eta Athletic fundazioak erabili izan du.

EAJ eta PP bakarrik agertu dira hitzarmenaren alde. Bildu, PSE-EE eta Aralar abstenitu egin dira. Euren astelehenean aurkeztutako mozioa zuzenagoa dela uste dute. Berez, laguntza 40.000

europakoa izan behar zela-eta, ez dute ulertzen jaitziera. Diote Azterlaneko lokal zaharra leku hobea dela egoitzarako -140 m karratu handiagoa ei da-. EAJk esan du elkar-teak berak bota duela atzera leku hori, baina oposizioak ez du sinisten. Bestalde, uste dute euren proposatu zutelako eroan zuela gaia batzarrera EAJk. ■ M. O.

# Presoen eskubideen aldeko mobilizazioa, "jolasa" izango da

Herrira mugimenduak Lipdub nazionala egingo du abenduaren 8an, Durangoko alde zaharrean

Herrira mugimenduak euskal preso politikoen eskubideen aldeko Lipdub-a egingo du abenduaren 8an. Aurkezpenean, Ziortza Jaiok esan du, ekimen honeguz mobilizatzeko beste modu bat proposatu gura dutela, jolasaren bidez. Partaideek abesti bigaz kantatu eta dantzatuko dute, kamera bat ibilbidetik pasatzen doan bitartean. Grabazioa, urtarilaren 12an Bilbon egingo den manifestazioaren promoziorako erabiliko dute.

Durangoko Azoka dela aprobetxatuz, hainbat artista gonbidatu dituzte: Gontzal Mendibil, Kirmen Uribe, Pirritx eta Porrotx... Txan magoa ere aurkezpenean izan da. Gidoia Oier Gonzalezek eta Peru Magdalenak idatzi dute. Magdalena: "Lipdub-a elkartasun leherketa kolosala izango da". Rosi Aranburuk adin guztietako jendea deitu du: "Mobilizazio eredu hau 'gozada' bat da". Landakon hasiko da, 15:00etan. ■ M. O.



Gonzalez, Txan magoa, Jaio, Aranburu eta Magdalena.

MAÑARIA

## Jaietako irudien erakusketa egingo dute gaur iluntzean

Jai batzordeak aurtengo Andra Mari jaietako argazki eta bideoak erakutsiko ditu gaur, iluntzeko 20:30ean udal aretoan egingo den ekitaldian. Eneritz Areitio jai batzordeko kideak azaldu duenez, material guztiagaz muntaia egin dute, eta ordu laurden inguruko proiektzioa eskainiko dute. Gainera, irudi horietako batzuk herritarrek emandakoak izango dira. Izan ere, jai batzordeak eskakizuna egin du azken asteetan.

Ekitaldia, herritarrei eskerrak emateko ere aprobetxatuko dute, Areitio esan duenez: "Jaietan herritarren parte-hartzea eta laguntza oso handia izan zen". Areitio adierazi du jaien oso balorazio positiboa egin zutela. Las-ter hasiko dira datorren urteko jaiak prestatzen, eta herritarrei bertan parte hartzeko aukera ere eman gura diete. ■ M. O.

ATXONDO

## Nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute domekan

Atxondoko Nekazaritza eta Artisautza Azokak 16. aldiz egingo du domeka honetan. Goizeko 10:00etan hasi eta eguerdira arte, 40 bat postutan banatutako produktuak ikusi eta erosteko aukera egingo da Apatan. Postuak udaletxe pareko plazan, Autonomia kalean zein pilotalekuan atonduko dituzte.

Euskal Herriko hainbat herritatik etorriko dira artisautza eta nekazaritza munduko ekoizleak euren produktuak erakustera; tartean, Atxondoko hiruzpalau postu egongo dira, baserriko ortuarien, ogigintzaren edo pastelgintzaren arlokoak, besteak beste.

Horrez gainera, goizean zehar, Lumagorri etxeko oilaskoak erreko ditu udalak, eta ondoren, horiekin prestatutako pintxoak egingo dira salgai. ■ J.D.

ZALDIBAR

## Udal aurrekontua osatzeko herritarrei iritzia eskatuko diete

Etxe guztietan banatu dituzte inkestak, eta abenduaren 5era arte bete ditzekete herritarrek

Datorren urteko udal aurrekontua osatzeko oinarri legez hartuko ditu Bilduren gobernuak, inkesta horren bitartez jasotako iritzia. Hainbat inbertsio aukera jasotzen du inkestak, eta bertan markatuko dute herritarrek zeintzuk diren, euren ustez, lehentasunak.

Abenduaren 5era arte bete ahal izango dituzte zaldibartarrek inkestak, eta herrian ipinitako buzoietatik jasoko ditu udalak.

**Herrian ipinitako buzoietatik jasoko ditu udalak herritarren iritzia eta iruzkinak**

Udaletxean, eskola sarreran, plazan edota Eitzaga eta San Andres auzoetan ipiniko dituzte. Inkestaren emaitzak ezagututa, batzar irekia deituko dute urtarrilean, herritarren lehentasunen eta udalaren egoera ekonomikoaren berri emateko.

Herri batzarretan jaso zituzten iaz, herritarrek aurrekontuen inguruan zituzten ekarpenak. Arantza Baigorri alkateak esan duenez, "herritarren parte-hartzean sakontzeko eta jende gehiagorengana heltzeko", aldatu dute metodologia. "Etxe guztietara helduko da inkesta, eta iritzia ematea erraztuko dugu", gehitu du Rafa Urizar zinegotziak. ■ I.E.

## EAJk dio Bilduk ez duela bete euskararen ordenantza

Bilduko udal gobernuak euskararen erabileraren ordenantza bete ez duela salatuz, oharra bidali du EAJk hedabideetara. "Euskararen defendatzaile sutsu hauek dute ordenantza bete gabe uzten dute hainbatetan, eta gaztelania hutsean aritzea aukaritzen dute", diote jeltzaleek.

Nerea Garitagoitia bozera-malearen berbetan, EAJk irailan aurkeztu zuen gazteriari buruzko mozio bati gaztelaniaz erantzun zion Bilduk. Gobernu taldeak hainbat "agiri" gaztelania hutsean kaleratzen ditu, eta kontratazioak egiterakoan ez dituela hizkuntza eskakizunak kontuan hartzen dio EAJk.

Euskararen ordenantzaren arabera udalak hizkuntza bietan erantzun behar duela gogoratu, eta "zinismo politikoa" egotzi dio EAJk Bilduri. ■ I.E.

ELORRIO



Amgalara joango den taldeko hainbat lagun, institutuan.

## Bizikleta zerbitzua ipini gura dute asteen, Amgalan

Gaur irtengo dute Tinduferra 30 lagunek, hango elkartasun proiektuagaz jarraitu eta lan egiteko

Astebeterako bidaian joango dira gaur Tinduferra, Elorrioko 30 bat lagun. Amgala herrian errefuxiatutako saharauiekin elkartasunez-

ko proiektuagaz jarraituko dute. Udala, Lajwad elkartasun taldea, Txintxirri ikastola eta institutua egingo dira ordezkaturta bertan.

Hainbat ikaslek ere parte hartuko dute. Amgalan kirolgune bat egiten hasi ziren aurreko bidaietan, eta zelan dagoen ikusiko dute. Gainera, bizikleta zerbitzua ipini gura dute komunitatearentzat. Horretarako, Orbea etxeak emandako 60 bizikleta eroan dituzte.

Saharauiek eskatutakoaren arabera egiten dute ekarpena. Esaterako, udaletxea margotuko dute eta hamar familiari ortua sortzen lagunduko diete. ■ M. O.

MALLABIA

## Konposta egin gura duten herritarrekin batzarra

'Murriztu zure hondakinak, konposta lortu' kanpaina aurkeztuko dute abenduaren 5ean

Mallabiko Udalak konpostatzea bultzatzeko kanpaina jarri du martxan Debarrenako Mankomunitatearekin batera. *Murriztu zure hondakinak, konposta lortu* izenburua jarri dio udalak kanpainari. Konpostaren arloan aditua den teknikaria kanpainan parte hartu gura duten herritarrekin batze-

**Kanpainaren aurkezpena datorren asteazkenean, abenduak 5, egingo dute**

**Batzarrean azalpenak eman eta konpostadoreak banatuko dituzte**

ko hitzordua jarri dute dagoeneko. Kanpainaren aurkezpena datorren asteazkenean, abenduak 5, arratsaldeko 18:00etan egingo dute, Kultur Etxean. Proiektua diseinatzeko diharduen Vermican enpresako arduradunek konpostatzearen inguruko azalpenak emateaz gainera, konpostadoreak banatuko dituzte bertarantz diren artean. Beraz, materiala jaso eta oinarriko informazioa jasotzeko aukera emango dute.

Batzar honen ostean teknikariek konpostadoreen jarraipena egingo dute, konposta behar den moduan egiten dabilzala ikusteko. Udalak ekimenean parte hartzera gonbidatu ditu herritar guztiak. ■ M. O.

**ETXOSTE JAIETXEA**  
**ABENDUAK 15**  
 bazkaria

{ Porrusalda - Baba gorriak  
 Bakailaoa bizkaitar erara } **28€**  
 { Baserriko oilaskoa - Intxaursaltsa  
 Lapikoko kafea eta etxeko ardoa }

ATXONDO - 94 682 06 31 - 626 402 693

R.P.S. 214/06

A. Urreta podologo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

**Adinara Urreta Jainaga**  
 PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04



*San Nikolas Eguna*

**II. IZURTZAKO**  
**II. GaztARDOgi**  
**FERIXA**

**ABENDUAK 6**

Osteguna, 11:00 - 15:00

ANTOLATZAILEA



LAGUNTAILEAK



ARGINTXU  
KULTUR  
ELKARTEA



**OTXANDIO****Herritarrekin batera egokituko dute Herri-ola garai berrietara**

Herri-ola egitasmoak Otxandioren arlo guztietako garapen eredu definitzen du: kirol edo kultura arlokoa, etxebizitza politiken edo mugikortasunaren ingurukoa, parekidetasunaren edo energia subiranotasunaren gainekoa... Badira urte batzuk martxan ipini zutela, eta harrezkero hainbat aurrerapauso eman dituzte. Hala ere, krisia hasi zenetik hona errealitate aldatzen ari da: "Arriskuak eta aukerak eskutik datozen garaian bizi gara", diote udal ordezkariak. Horregatik, martxan ipini dute Herri-ola egitasmoaren gaineko hausnarketa prozesu zabal eta dinamikoa, eta prozesu hori herritar eta eragile guztien artean egin gura dute.

Bidehorretatik, herritarren iritzia jasotzeko 13 kafe-tertulia antolatuko dituzte. Kafe-tertulia bakoitzean Herri-olan jasotzen diren arlo bakoitzeko ildo estrategikoak izango dituzte eztabaidagai. Lehenengo hiru hitzorduak urtea amaitsu aurretik egingo dituzte. Abenduaren 5ean, 19:00etan, uraren kudeaketaren gainean jardungo dute Bolalekuan. Hilaren 12an, 19:00etan, kultur eredu eztabaidatuko dute Bolalekuan. Azkenik, hilaren 19an, 18:00etan, kirol ereduaren inguruko hausnarketa proposatuko dute Mainondoko gimnasioan. Gainerako batzarrak 2013an zehar izango dira. ■ J.D.

**DURANGALDEA****140.000 euroko laguntza, sare industrialia indartzeko**

Bizkaiko Foru Aldundiak 140.000 euroko laguntza eman dio Durangaldeko Lehiakortasun Poloari. Durangaldeko Enpresen Elkar-teak, Amankomunazgoak eta Azterlanek osatzen dute elkargune hori, eta enpresa txikien eta ertainen lehiakortasuna hobetzea dute helburu. 2009an hasitako lanari bultzada emango dio ekarpen honek, arduradunek prentsurrekoan azaldu dutenez. Poloaren izenean, Anton Gorriñok esan du elkarlana, aukeren identifikazioa, eskualde mailako konpromisoa eta teknologia berriengarapena ere sustatu gura dituztela.

Dagoeneko martxan dituzte sektorekako lan-talde bi. Estanpazio arloko produkzio katean dabilzan hainbat enpresagaz batzen dabilta, eta makina berri bat diseinatuko dute. Fundizio arloan ere hasi berri dira lehenengo pausoak ematen. Enpresen artean konfiantza sortu gura dute, eta enpresa handi eragileek eskualdeko enpresa txikien gaiak erabiltzea erraztea dute asmoen artean, esaterako. Esan dutenez, beste sektoreetako enpresekin ere antzeko talde bat sortzea aurreikusten dute. Gainera, estanpazio sektorean goi mailako formazioa eskainiko dutela adierazi dute lehiakortasun poloko ordezkariak. ■ M.O.

**IURRETA****"Zerbitzatzera etorri nintzen, ez zerbitzatu izatera"**

**O**menaldia egingo diote elizak eta herriak Jon Onaindia abadeari, etzi; bertsolariak eta dantzariak arituko dira esker oneko ekitaldian.

*Ardura barik, baina, oraindik meza ematen duzu Iurretan. Noiz arte?*

Ahal dudana arte. Hiru hilabete dira jubilatuta nintzela, baina, osasuna eduki bitartean, Jabier Ezkauruazerri lagunduko diogu.

*24 urte Iurretan. Gogoan al duzu lehenengo meza?*


Ez. Andra Marian (Durango) nengoen orduan. Ez nintzen garaileen legez sartu, handiguz. 1988ko irailaren 1ean izan zen.

*Zelan hartu zintuen?*

Ondo! Oso pozik nago. Estimatzuten naute eta ondo konpontzen naiz denekin. Oso herrikoia naiz, nire izakera da: zerbitzatzera etorri nintzen, ez zerbitzatu izatera.

*Atzerabegiratu eginez gero, zelan ikusten dituzu 24 urteok?*

Lan arloan, familian, seme-alaben hezkuntzan, giza-balioetan, ekonomian... Krisia bizi dugu; krisi erlijioso sakona ere bai. Presa batean lez, arrakalak sortu ziren 70eko hamarkadan, eta urak dena eroan zuen. Ez dakigu zer norabidetan joko duen



Durangoko Abadetxean bizi da orain Jon Onaindia. Iñaki Irazabal

honek, baina, aurrera egiten saiatuko gara. Mundua heldutasunera helduko denaren itzaropena dut: umezaroa pasatuta, nerabezaroan dagoelakoan nago. Niretzat, pertsonaren duintasuna eta askatasuna dira garrantzitsuenak, elkarrizketa eta errespetua. Betidanik oinarrizko balio ditut.

*Aurten justu, apostasia egitea ere eskatu dizute. Zer iritzi duzu?*

Bakoitza libre da gura duena egiteko, ez dut inoz hori kritikatu. Gizartea aldatu eginda, baina gutxi eskatzen dute apostasia, eliza eta sinismena utzi arren.

*Markinan jaio eta Azkainen bizi.* Bai, Gerra Zibilaren ondorioz Iparraldera ihes egin genuen, *La Habana* itsasontzian. Gerrako ume horietako bat naiz. Azkainen bizi izan naiz. Gasteizko seminarioan nengoela ere (1946-1956), muga pasatzen nuen oporretan, mendietatik; mugalari nintzen.

*Hego Amerikan ere ibili izan zara.* Ekuadorren egon nintzen (1966-1972), eta hangoa beste mundu bat da. Oso gustura egon arren, Euskal Herrira etorri gura nuen. Ez nuen galdu gura hemengo tren, gertatzen ari zena. ■ A. B.

**BERRIZ****Edukiontzi marroiak ipiniko dituzte Berriziklatu zabaltzeko**

Zabor organikoa konpost bihurtu gura duenak abenduaren 5era arte izena eman dezake

Azterlanen aztertutako lehen konpostak kalitate onekoa dela jakin berri, Berriziklatu egitasmoaren bigarren fasea aurkeztu du Berriziko Udalak. Orain arte, 15 tona bai-

no gehiago tratatu dira Berrizburuko konpost plantan. Saiakeran parte hartu dute 60 familiak, jate-txe batek, lau fruta-dendak, barazki denda batek eta Learreta-Mar-



Orland Isoird alkatea, eguaztenean egindako aurkezpenean.

kina eskolak. Herritar gehiagorengana zabaltzeko, edukiontzi marroiak ipiniko dituzte zabor organikoa bertara botatzeko.

Fase honetan parte hartu gura duten berriztarrei, patata fekulazko ehun poltsa -biodegragarriak dira-, edukiontzirako giltza eta etxean edukitzeko ontzitxoak emango dizkiete. Gerora, zabor poltsa bereziak herriko dendetan egongo dira salgai. Kanean lau edukiontzi ipini gura dituzte, eta Orland Isoird alkateak aurreratu duenez, kokapena zehazteko, animatzen diren herritarren bizilekua hartuko dute kontuan.

**Patata fekulazko poltsak, edukiontzirako giltzak, eta etxean edukitzeko ontzitxoak banatuko dituzte**

Dagoeneko banatu dituzte informazio eskuorriak, eta 22 lagunek izena eman dute, Julen Arzuaga teknikariak azaldu duenez. Abenduaren 5era arte eman ahal da izena, eta edukiontzia erabiltzeko aukera emateaz gain, orain arteko atez ateko sistema aukeratu ahal izango du gura duenak: "Herritar bakoitzak erosoan dator kion sistema aukeratu ahal izango du". ■ A. Ugaldé.

**Bigarren eskuko azoka eta Rafa Rueda asteburuan**

Abenduaren 3a Euskararen Eguna dela-eta, zapaturako egun osoko egitaraua antolatu dute

Gaur gauean kantu afaria Toki Onan, bihar Euskarazko bigarren liburu eta disko azoka, kontzertuak, ikuskizunak... Asteburu bete-betea dator Berrizen, Euskararen Eguna dela-eta.

Bihar, Olakueta plaza inguruan egongo da giroa egun guztian. Goizean, bigarren eskuko liburu eta disko azoka izango da, eta trukean edo prezio merkean eskuratu ahal izango da materia-

la. Umeentzako tailerrak egongo dira goizez eta arratsalde, eta tartean, ipuin erraldoia eraiki eta margotuko dute, eta hitz gurutzatu erraldoia egingo dute. Rafa Ruedak kontzertua eskainiko du 22:00etan, Kultur Etxean.

Domekan musika eta bertso ikuskizuna egongo da Kultur Etxean, *Bianai*, eta astelehenean Revolta Permanent rap taldeak kontzertua eskainiko du. ■ A. U.

**Ordezkapenen hizkuntza eskakizuna eztabaidan**

Udaletxeko garbitzaile posturako lehenengo perfila eskatzen dutela, baina ordezkapenerako horrelakorik ez dela behar salatu du herritar batek. Aizpea Uribe kazal-

du du Hizkuntza Eskubideen Behatokia ipini duela kexa, eta baita Elebide zerbitzuan ere. Uztailean ipini zituen kexa, eta Udaletik ez du erantzunik jaso.

Orland Isoird alkateak dio kontratazioak egun batetik bestera egin behar zirela eta lan-poltsa agortuta zegoenez, Gizarte Zerbitzuetako zerrendatara jo zutela: "Badakigu eta zuzentzen gabilta, kontratazioak euskarazko eskakizunak betez egin daitezten". ■ A. U.



## Durangaldean labor

### Berrizko Euskadiko Kutzaren bulegoan lapurreta egin dute

Geltoki kalean dagoen Euskadiko Kutzaren bulegoan gizonezko bat arma bat eskuan zuela sartu zen atzo eguerdiko 14:15 inguruan. Gizonezkoak bertan ziharduten beharginak mehatxatu zituen dirua emateko. Momentu horretan bulegoan ez zegoen bezerorik. Lapurra, Ertzaintzak zehaztu ez duen diru kopuru batez gazi ihesi joan zen. Ertzaintza kasua ikeritzen dabil.

### EAJri Urkulluren ekitaldia ordaintzeko eskatu diote

EAJk Iñigo Urkulluren aldeko hauteskunde kanpainan Landako erakustazokan ekitaldia egin zuen, eta PSE-EEk gogorarazi gura izan dio, oraindik ez duela ordaindu eraikinaren erabilera. Hauteskunde osteko jaiagatik ere ez duela ordaindu kritikatu dute. PSE-EEk esan du eraikinaren enpresa publikoak milaka eurotako defizita daukela urtero.

### Berdintasun teknikaria eta sinadura bilketa

Elorrioko Udalak berdintasun teknikariaren postua amankomunatzeko asmoa daukela-eta, orain arteko lanpostua aldarrikatzeko informazioa ematen eta sinadurak batzen hasi dira. Herrian sortu den Txoko Feministak abiatu du salaketa kanpaina. Norbanakoen eta elkarrekin atxikimenduak jaso gura dituzte.

### Euskararen astea Lourdes ikastetxean

Elorrioko Lourdes ikastetxean Euskararen Astea izango dute datorren astean. Besteak beste, martitzenean, Gatibu taldeko kideen bisita, tailerrak, bertsoak eta berbena izango dituzte. Ikastetxea kooperatiba da orain, eta hauek dira eratu dituzten lehenengo ekintzak.

## ABADIÑO

### Aipamen berezia jaso dute lau abadiñarrek Beldur Barik lehiaketan

Astelehenean, Errota kultur etxean erakutsi zuten lau gaztek egin duten 'Kanpora etiketak' bideoa

Kanpora etiketak izena duen lana-gazte jaso dute herriko lau gaztek Beldur Barik lehiaketan aipamen berezia. Argazki muntaia bat du lanak oinarri, eta gizarteak aurrez juzgatzeko eta jendea etiketatzeko ohi-turari buruzko lana da 15 urteko lau abadiñarrek egin dutena.

Astelehenean, egileak zuzendutako Ima Zapardiez zinegotziak Traña-Matienako Errota kultur etxeko ekitaldian, eta bideoak

zabaltzen duen mezuak daukan garrantzia azpimarratu zuten, gainera, aurkezpen horretan.

Lehiaketaren lehenengo kategorian, 12-17 adin tartean jaso dute Jone Astorkiak, Jone Azpirozek, Laia Gerrikagoitiak eta Elene Quintanak aintzatespena.

Lehiaketara aurkezturiko gaitzatzeko lanekin batera, [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) helbidean dago Abadiño gazteen lana ikusgai.



Egileak zoriondu zituen Ima Zapardiez zinegotziak, Errota kultur etxeko ekitaldian.

Zapatuan eman zituzten aurten Beldur Barik lehiaketaren sariak Gasteizen, eta Abadiño taldeaz gainera, Elorrioko talde bat ere saritu zuten.

**Jone Astorkia, Jone Azpiroz, Laia Gerrikagoitia eta Elene Quintana gazteak dira egileak**

Bigarren kategorian, 18 eta 25 urte arteko mailan, Elorrioko Txoko Feministak egindako lan bat saritu dute. *Izan nahi duzu?* izeneko lana aurkeztu zuten. ■ I.E.

### Daudenean mantenduko dituzte zerga gehienak

AI eta EAJren aldeko botoagaz eta Bilduren abstentzioagaz egin du proposamenak aurrera

Jose Luis Navarro alkateak martitzeneko udalbatzarrean azaldu zuenez, "herritarren gainera presio fiskala ez handitzea" izan da, 2013rako zergak eta tasak finkatzeko, gobernua izan duen helburua. Daudenean utziko dituzte gehienak. Salbuespen bi egingo dituzte: ibilgailuen zerga %3 eta igerilekuko tasa %2,9 igoko dute.

**Salbuespenak: ibilgailuen zerga %3 eta igerilekuko tasa %2,9 igoko dituzte 2013an**

Zaborren tasa aurrerago ezartzea onartu dute udaleko hiru alderdiek. Azaldu dutenez, Ogasun batzordean eztabaidatuko dute zelan aplikatu zerga hori progresiboki: dende eta enpresek zaborren tasa euren lokalen metro koadroen arabera ordaintzeko modua bilatu gura dute.

#### Kanona bankuei

Bankuei kanona kobratuko die udalak, lehenengoz. Azaldu dutenez, 152 euro ordaindu beharko dituzte kutxazainak bide publikoan edukitzearen. ■ I.E.

### Partzuergoari hutsegitea konpontzeko eskatu diote

Zerbitzurik ematen duen begiratu barik kobratu du

Martitzeneko galderen eta eskarien tartean atera zuen Bilduk gaia. Aitor Azuetak azaldu zuenez, saneamendu zerbitzurik ez daukaten baserri ere zerbitzu hori kobratu die Bilboko Ur Partzuergoak. Zerbitzua ematen dieten begiratu barik, baserri guztiak kobratu die. Jose Luis Navarro alka-

teak azaldu zuenez, Partzuergoaren hutsegite bat izan da gertaturikoa, eta sarera lotu barik dauden baserri kobratuak buelta diezaietela eskatu du udalak.

Partzuergoak hutsegitea konpondu dezan, udalak saneamendua sarera lotu barik dauden baserrien zerrenda eman die. ■ I.E.

## IZURTZA

### Bigarrenez egingo dute Gazta eta Ardo Azoka, abenduaren 6an

Pilotalekuan atondutako 20 bat postuetan hainbat produktu egongo dira

Abenduaren 6an, San Nikolas egunean, Gazta eta Ardo azoka egingo dute bigarrenez, Izurtzako pilotalekuan, 11:00etatik 15:00etara. Iaz herritarrek azokari emandako harrera beroak eroan ditu udal arduradunak aurren ere berriro antolatuz.

Pilotalekuaren luze-zabalean 20 bat postu ipiniko dituzte. Gazta eta ardoaz gainera, denetarikoa janari, edari eta produktuak egongo dira ikusgai eta salgai: ezti, gozokiak, sagardoa, txakolina... Durangaldetik, besteak beste,

**Eztia, ortuariak, sagardoa, txakolina... Askotariko produktuak egongo dira**

Mañariko, Iurretako eta Mallabiko ekoizleak etorriko dira; Euskal Herritik, esaterako, Urduliz, Urretxu edo Lizarrako ekoizleak gonbidatu dituzte. Frantziatik datorren postu batean *foie gras* salduko dute. Ekoizle izurtzarrek ere euren lekua izango dute hiruzpalau pos-

turekin. Aipagarria da Adela Andikoetxea urduliztarrak ipiniko duen ortuarien postua. Azoketara joan izan da 30 urtetan, eta dagoeneko 600 sari inguru irabazi ditu.

#### Pintxoak eta erakusketa

Azokaren harira hainbat ekimen prestatu dituzte. Azoka inguruan, oilasko pintxoak eskainiko ditu Eusko Labelak.

Bestalde, jubilatuen lokalean Izurtzaren inguruko margolanen erakusketa antolatuko dute azokako orduetan. ■ J. D.

## GARAI

### Bideak konpontzea eta ur hornikuntza, aurrekontuan

Auzobideak konpontzeko 11.600 euro erabiliko dituzte, eta ur hornikuntzarako 60.000 euro

Garaiko Udalak badauka diseinatuta 2013rako aurrekontua. Joan zen astean onartu zuten udalbatzarrean; Herriko Taldeak babestu zuen proposamena, eta EAJk kontra egin zuen. Inbertsio erre-

**2013rako, 430.550 euroko gastua aurreikusi dute udal ordezkariak**

len atalean, bideak konpontzea eta ur hornikuntzako lanak zehaztu dituzte. Auzobideak konpontzeko 11.600 euro erabiliko dituzte, eta uragaz lotutako obrarako 60.000 euro.

#### Gastua, sarreren berbera

Udal ordezkariak 430.550 euroko gastua aurreikusi dute, sarreretan jasoko luketen kopuru berbera. Langile gastuei aurre egiteko erabiliko dituzte 163.000 euro, eta 130.000 zerbitzuen erosketetarako, besteak beste. ■ M. O.

## BERBAZ &gt;

# “Urteko egun guztietan euskara erabiltzeko motibazioan egin behar dugu lan”

Euskararen Eguna hausnarketarako aitzakia hartuta, eguneroko erronkez hitz egin dute elkarrizketatuek

**B**igarren urtez antolatu du Berbaro taldeak Euskarak 365 Egundako kanpaina. Goiatz Pelaezek Plateruena Kafe Antzokian lan egiten du, Gorka Madrazok Berbaro elkartearen eta Goretti Alonsok Anboto Komunikabideetan. Euskaragaz dauzkaten bizipenei buruz eta Berbaro taldearen proiektuari buruz berba egin dute elkarrizketan.

*Zelan sumatzen duzue euskararen egoera Durangaldean?*

**Goretti Alonso:** Ez oso ondo. Nik ikusten dudanez behintzat, lehenengo berba beti doa erderaz, eta gazteengan geroago eta gehiago.

**Gorka Madrazo:** Bai, eta uste dugu Durangaldea oso euskalduna dela, eta gezur hutsa da, erabilera oso eskasa da.

**G.A.:** Askotan euskaraz bizi gare-nok pentsatzen dugu normaltasun baten barruan dagoela euskara, baina gero, oso erdalduna da Durangaldea, eta geroago eta gehiago. Herri txikietan ere, gauza bera gertatzen da.

“Durangaldea oso euskalduna dela uste dugu, baina gezur hutsa da”

**Goiatz Pelaez:** Tabernan ere asko ikusten da hori. Umeez ere, baso bete ur erderaz eskatzen dute batzuetan.

*Berbaron, Plateruenean, Anboton... Zuen lan esparruetan zer zailtasun ikusten dituzue euskaraz bizitzeko?*

**G. M.:** Gazteek oso gutxi erabiltzen dutela ikusita, Topagunetik formatu gaituzte ‘Zergatik ez?’ tailerra emateko. Motibazio tailerra da, euskara ezagutzen duenak eta erabiltzen duenak gehiago erabiltzeko. Durangaldean hitzarmena lortu dugu eta dagoeneko hasi gara ikastetxe batzuetan, 4. DBHn eta batxilergoan. Hausnarketa bidez, erabilera datuak eman, hizkuntza bat edo beste aukeratzeko zer faktore dauden... Adibidez, sarritan, kafetegi batera joaten gara, eta barraren atzekoak euskaraz ez duela jakingo pentsatzen dugu.



Lehenengo ahaleginean, euskaraz egitea eta motibazio teknikak ikastea behar dugu.

**G.P.:** Plateruenera gazte asko etortzen da, adibidez, Gau Elektronikoa, eta Lokaletik At talde hasiberrientzako ekimenera. Normalean, batzarra egiten dut eurekin, eta esaten diet publikoari euskaraz egin behar diotela, nahiz eta abestiak ez duten zertan euskarazkoak izan. Gau Elektronikoa txarteldegira datozenek, normalean, erdera hutsean egiten dute berba. Kultura-sustatzaileek, oster, erdi

eta erdi egiten dute. Plateruenean adin askotako jendea batzen da. Tabernan dezente egiten da euskaraz, eta erderaz ere bai, batez ere gauetan.

*Goretti, zu publizitate arloan, merkatariekin ibiltzen zara hartu-emanen...*

Bai, eta herriaren arabera izaten da, baina askotan telefonoz lehen berba ‘bai?’ izan beharrean ‘¿si?’ izaten da. Gehienetan saiakera egiten dut, ‘euskaraz badakizu?’ galdetzen. Eta ahalegin askorik ez dute egiten

askok... Erderarako joera daukate. Herrika, Elorrio batean, merkatariekin euskaraz egiten dute, Atxondon ere bai. Trañamatiengan... Ez, eta Durangon, erdera asko egiten da. Hori telefonoz, baina dendetan ere, lehenengo berba erderaz izaten da: ‘si quieres, te ayudo en algo’.

**G.P.:** Orain Durangon euskaraz erosteko kanpaina dago.

**G.A.:** Gustatuko litzaidake jakitea zelako estatistikak dituzten.

*Oztopo eta erronkez gainera, aurrerapausoak ere egon dira euskararen normalizazioan...*

**G.M.:** Berbaron adibidez, etorkin taldeek errefortzuzko eskolak hartzen dituzte, eta asko etortzen dira, hainbat ikastetxetatik. Etixerako lanak egiten, euren artean euskaraz berbe-

## Goiatz Pelaez, Gorka Madrazo eta Goretti Alonso

■ Ezkerretik eskumara, Plateruena Kafe Antzokian Goiatz Pelaez, Berbaroko Madrazo eta Anbotoko Alonso.

tan... ibiltzen dira. Dendariena aipatu dugu, eta nik bai pentsatzen dut euskararen parte izan gura dutela. 365 kanpaina kartela ipintzea bezeroak erakartzeko modua dela ikusten dute.

*Berbaro taldeko hiru adarrak hartu-emanak sendotzen hasi zarete. Zer moduz?*

**G.P.:** Bagabiltza elkar ezagutzen, eta oraindik asko dago egiteko, baina dagoeneko bagabiltza elkarlanean. Edozer gauzatarako telefonoa hartzen dugu, eta hartu-emana hor dago.

*Eragileek bat egiteko premia ikusiduzue. Sanfaustoetan, adibidez, AEK, EHE eta Ibaizabal ikastolarekin GUKA gunea sortu zen. Zer balorazio duzue?*

**G.M.:** Nik uste dut oso ondo joan zela. Herriak ikusi zuen euskalgintzako zati bat, behintzat, han zegoela, eta hara jotzen zuten. Txosna oso txukun gelditu zen eta ekipo ona egon ginen dena prestatzen. Bakarka gutxira heltzen gara, eta elkarrekin gehiago egin ahal dugula ikusi dugu.

*Abenduaren 4tik aurrera, zer?*

**G. A.:** 3ra arte egin dugun gauza bera.

**G. M.:** Urteko egun guztietan euskara erabiltzeko motibatzen jarraitu beharko dugu. Bakoitza konturatu behar da zertan dabilen, ezezagunari lehenengo hitza erderaz egitean, lagunekin hizkuntza aldatzen dugunean...

**G.A.:** Hausnarketa puntu bat izan daiteke abenduaren 3a. Behintzat gure buruari galdetzeko, zergatik dauzkagun ohitura horiek. Lehenengo pausoa euskaraz zuzentzea izan behar da.

**G. M.:** Gainera, Euskal Herrian, momentu honetan mila hizkuntza egiten dira. Komuna euskara izan beharko litzateke. ■ A.U.

GUKA eta elkarlana: “Bakarka gutxira heltzen gara, eta elkarrekin gehiago egin ahal dugula ikusi dugu”



## IRITZIA &gt;

gutunak@anboto.org

## ■ Sei hankako mahaia

Aitziber  
Irigoras  
EAJ

## Euskaraz bizi nahi dugunon garaia

Izenburua irakurrita seguru nago hainbat egoera etorriko zaizkizuela gogora, izan ere, askotan erabilia izan da norbaiten edo zerbaiten garaia dela, eta, akaso, errepikari ere bihurtu izan da. Halere, oraingoan izenburu hori jarri nahi izan dut benetan uste dudalako gure garaia iritsi dela, euskaraz bizi nahi dugunon garaia, euskaraz bizi nahi duen herriaren garaia.

Azken urteotan aurrera egin du euskararen herriak, zalantza-izpirik ez dut. Gurea bezalako hizkuntza gutxituen berreskurapen-prozesuei begiratu gero, harro esan dezakegu aurrera goazela, eta horren arrazoi nagusietako bat euskararen herriak euskaraz bizitzeko agertu duen nahia izan da. Euskaraz bizitzeko nahi hori errealitatezkoa izan dadin euskalgintzak hizkuntza-berreskurapenari egin dion ekarpena azpimarratu behar delakoan nago: hezkuntzan, helduen euskalduntzean, lan-munduan, zientzian, interneten, itzulpengintzan, kulturgintzan, sorkuntzan, motibazioan, hedabideetan... Eta horietan guzietan euskaraz bizitzeko nahia egon izan da atzean.

Euskaraz bizitzeko nahia pasioz, determinazioz eta grinaz eutsi dio euskararen herriak; eta nahi horrek eragin zuzena izan du gure herrian eman diren aurrerapausoetan. Azken asteotan herritar anonimo batzuen eskutik nahi hori erakutsi izan dugu: Leire ataundarrak euskara erabiltzeagatik inoiz umiliatua izan dela azaldu digu, bai eta semeentzat halakorik nahi ez duela ere, eta, horrexegatik, ama baten bihotzetik, hizkuntza-eskubideak babesteko eskatu du, laguntza zuzena eskatu du; Iñigo eta Aizeti Bilbotarrek alabaren pediatria euskalduna ez izateak eragiten dien inpotentzia azaldu dute, baina oztopoen gainetik euskaraz bizi direla adierazi dute; eskolak euskaldundu ez eta bere burua euskalduntzeko asmo irmoa erakutsi digu Ruben gasteiztarrek; Nekane leka-roztarrak lanbide-heziketan euskalduna izateagatik pairatutako bereizkeria kontatu digu, baina egun euskaraz lan egiteak eragiten dizkion abantailak ere partekatu ditu. Jasone leitzarrak arnagune batean bizitzeak lasaitasuna dakarkiola azpimarratzen du; euskaraz bizitzea erabaki bat ez ezik, sentimendu bat ere badela azaltzen du. Adibide batzuk besterik ez dira izan, euskaraz bizitzeko hautua egin duten herritarrek, euskaraz bizitzea naturalizatzen hartzen duten herritarrek, eta jakin badakigu herritar hauen moduan, euskaraz bizitzeko nahia eutsi eta eusten dioten herritarrek milaka izan direla azken urteotan.

Halere, herritar horiek beharrezkoak izan arren, euskaraz bizitoki den herria erdiesteko ez da nahikoa herritarren borondatea. Lehenik eta behin, gure hizkuntza-komunitatea handitu behar dugu, eta horretarako euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa eramango gaituzten erabakiak eta politikak behar ditugu. Bai, erabakiak eta politikak diot, horretara iristeko tresnak aspaldi jarri baitzituen abian euskalgintzak. Bestetik, euskararen erabilera jautzia eman ahal izateko espazioak euskalduntzeko politika eragingarriak behar ditugu, eremu sozioekonomikoan eta aisialdian bereziki, eta berriz ere esan behar dut erabakiak behar direla, eremu horretan ere, euskalgintzak aspaldian sortuak dituelako tresnak.

Orain, horiek eskuratzeko bideak jorratzea dagokigu. Baldintza sozial egokiak behar ditugu gure hizkuntzaren berreskurapen-prozesuak beharrezkoak dituen baldintza politiko, ekonomiko eta juridikoak eskuratzeko; tamalez, ez baitira egun batetik bestera etorriko. Hortaz, gure garaia dela erakutsi behar dugu. Instituzioetan, eragile politikoetan, sindikalgintzan, gizarte-eragileetan... Horietan guztietan erakutsi behar dugu euskaraz bizi nahi duen herria izan badela, eta herri horri erantzun behar diotela. Euskalgintzak eta euskararen herriak aspalditik erakutsi du zer nahi duen, baina erantzukizuna partekatua dela ulertu behar dute horiek guztiek, hots, gure hizkuntzaren etorkizunean betebeharrak dituzte-lu ulertarazi behar diegu. Lan horretan Kontseiluak eragiten jarrai-

tuko du, baina herritarren laguntza beharrezkoa dugu. Herritar bakoitzak eragile bihurtu behar dugu geure burua, eta euskaraz bizitzeko nahia berma dakigun konpromisoak eskatu behar ditugu; alegia, gure nahia erantzuteko neurriak eskatu behar ditugu.

Eta determinazio hori erakusteko, abenduaren 1ean euskararen herriak, euskaraz bizi nahi duen herriak, Donostiako kaleak bete behar ditu. Euskaraz bizitzearen hautua egiteagatik harro gaudela erakusteko aukera izango dugu larunbatean. Euskaraz bizi nahi duen herriari erreparatu behar zaiola erakutsiko dugu, ezikusiarrena egiterik ez dagoela erakustea lortu behar dugu, are gehiago, euskaraz bizitzea posible egiteko zeinek bere erantzukizunari erantzun behar diola zabalduko dugu. Euskaraz lan, irakurri, kontsumitu, pentsatu, jolastu, maitatu... BIZI nahi dugulako abenduaren 1ean determinazioa, pasioa, grina, gogoia, erakutsiko ditugu Donostiako kaleetan zehar. Euskaraz bizi nahi dugunon garaia iri ekingo diogu. Ez hutsik egin, zeure garaia ere izan dadin!!!

Paul Bilbao Sarria - Kontseiluko idazkari nagusia

## Euskaraz bizitzeko, euskarazko komunikabideak behar ditugu

Larunbatean, abenduak 1, Euskaraz bizi nahi dugu leloa oihukatuko dugu euskaltzaleok Donostiako kaleetan. Euskaraz jarduten dugun hedabide ez publikoak batzen dituen HEKIMEN elkartearen izenean, Kontseiluak deitu duen manifestazioan parte hartzera deitu nahi zaituztegu. Euskal Herri euskalduna nahi badugu, euskaraz bizi nahi badugu, komunikabide esparru indartsua izatea ezinbestekoa da. Euskal Herrian azken hamarkadatan gizarte hedabide sare zabala sortu da: 600 bat langile gara sektorean eta ehunka mila pertsonarengana helitzen gara. Esparru txikia da gurea baina, aldi berean, indartsua eta ezinbestekoa euskaraz bizi nahi badugu.

Administrazioa, hezkuntza eta hedabideak zutabe funtsezkoak dira hizkuntza garapenean. Baliabideei dagokienez, administrazioan eta hezkuntzan indar handia jarri da azken hamarkadatan, euskarazko hedabide publikoetan ere bai. Baina askoz gutxiago hedabide ez publikoetan. Euskal gizarte moderno eta kohesionatua eratzeke, hizkuntza-komunitatea osatzeko, gizarte hedabide sare zabala behar bezala babestu behar dugu.

Euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatibo sendoa garatzeko, elkarlanaren bidea jorratu dugu urte hauetan guztietan euskarazko komunikabideek. Elkarlan hori bideratzeko, HEKIMEN elkarte sortu berri dugu. 50 komunikabide baino gehiago batu gara, euskaraz bizi ahal izateko euskaraz bizi ahal izateko garrantziak garelako aldarrikatzeko. Euskaraz bizi ahal izateko, ezagutza eta borondateaz gain, ezinbestekoak dira baliabideak. Euskarazko eremuak behar ditugu. Hedabideen kasuan, gure herrietan, euskal gizarteetan, European, munduan... gertatzen denaz informatuko gaituzten komunikabideak behar ditugu. Teknologia berriek eta Internetek ekarri dituzten aldaketetara egokitutako komunikabideak.

Komunikabideontzat ez dira garai onak, krisi hotsak nonahi entzuten dira. Baina ilusioz ari gara beharrean, bizi dugun egoera gaitzari elkarrekin erantzunez. Euskal gizarteak garai berriak bizi ditu, testu-guru egokia euskararen normalizazioan behar ditugun aldaketak gertatzeko. Euskarazko komunikabideek, azken hamarkadetan bezala, gure ekarpenarekin jarraituko dugu. Guztiok euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun.

Hekimen: Iban Arantzabal (Tokikom), Iban Arregi (Berria), Joseba Igerabide (Xalao Telebista), Idoia Iparragirre (Gaur 8-Zazpi Haizetara), Berdaitz Goia (Argia), Iñaki Uribe (11 amaika Telebista), Jon Mikel Zabalegi (Gazteberri) eta Aitziber Zapiain (Euskal Irratiak)

## Harreman arriskutsuak

Urte batzuk ditugunok, erraz gogoratuko dogu John Malkovich-en film hau, gaztelaniaz *Amistades peligrosas* gisa itzuli zana. Kontakizunaren oinarrian XVIII. mendeko noble bien arteko norgehiagoka dago, hau da, euren arteko lehia, iruzurrez betea, beste batzuen mendekotasuna engainuen bidez lortzeko.

Arestian film hau etorri jat burura, zergaitik eta egunokaz, ez dakit arriskutsuak ete, baina bai arraro samarrak diren harremanak plazaratu (loratu esan behar?) egin jakuzalako gure herrian, Durangon, alegia. Bai, noski, PSE-ren eta Bilduren anaitasun barriari buruz ari naz, bai. Eta, alde zurretik, badaezpada be, zilegitasun osoz jokatzin dabela adierazi nahi dot. Argi eta garbi daukagu hori demokrazian sinesmena izan eta bide demokratikoan 100 urte baino gehiago emon dogunok. Alabaina, aldi berean, gure txundidura be jendaurrean azaldu beharra daukagu: garai batean alkarri mokoka ibilitakoak gaur egun alkarregaz aurketzen dabez ekimenak. Bai, irakurle harritua; ez dabe, ez, ezezko botoa emotean "koinziditzen", edota bat-batean iritzien bateragarritasuna agertzen; ez, sozialisten eta bildutarren logoak agiri berera batuta, batera aurketzen dabez proposamenak. Ez dira jada gehiago batzuk "espainolak" eta besteak "radikalak" izango. Adiskidetasunaren ildo topatu dabe nonbait.

Hainbeste eta hainbeste entzun behar izan eta gero, norberari kritikatuakoa besteek egiteak harridura sortzen deusku, guri eta, logikoa danez, alderdi bi horien hautesleriari. Ulertuko ei dabe? Eta horrenbesteko identifikazio maila, batzuen eta besteen artean, zergaitik orain? Eta zergaitik horrenbesteko oldarkortasuna jeltzaleen kontra? Erantzuna oso erraza da: azken hauteskundeetako EAJren emaitza onek bi indar politiko horien kezka piztu dabe, gehienbat, gure herri honetan. Edozelan be, guk gure lanari ekingo deusku betiko legez eta, urriko hauteskundeak mintzagai, EAJren izenean, eskerrik asko Durango eta eskerrik asko Durangaldea!

## Laguntzaileak:

**BFA**  
**DFB** Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko azaroaren 30a  
10. urtea - 482 zk.

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor López.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,  
Amaia Ugaldé, Ane Elordi.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako,  
Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokultura

# KULTURA >

ARTEA > ERAKUSKETA

## Jon Gorroñoren margo erakusketa zabaltzeko jaia

Durangoko Ibaizabal ikastolan ipiniko ditu Jon Gorroño artista durangarrak aurten egindako koadroak ikusgai

**J**on Gorroño (1980) artista durangarraren erakusketa inauguratuko dute, abenduaren 5ean, 20:00etan, Durangoko Ibaizabal ikastolaren tabernan.

*Artean jaia* izenburuko erakusketa zabaltzeko, beste arte adierazpideetan diharduten lagunak izango ditu Jon Gorroño inguruan: Karrika antzerki taldeko kideek antzezlan labur bat prestatuko dute ekitaldi horretarako, Peru Magdalena idazle eta margolari lagunak aurkeztuko du ekitaldia, eta lagun musikariren batek ere joko du, erakusketaren aurkezpenean. Luntxa ere ipiniko dute, eguaztenean Ibaizabaler bertaraten direnentzat.

Aurten egin dituen margolanen artean, aukeraketa bat eroango du Jon Gorroño, Ibaizabal ikastolako erakusketa horretara. "Salgai ipini barik, mugitu barik,

Aurten egindako lanen artean, aukeraketa bat eroango du erakusketara

Sentipen, bizipen eta sentsazioak adierazteko baliatzen du margogintza

hainbeste koadro pilatzeak pena ematen du, eta horregatik pentsatu dut erakusketa antolatzea", dio Gorroño.

Aurten inoiz baino koadro gehiago margotu dituela kontatu digu Jon Gorroño. "Orain arte ere marraztu izan dut, baina ez naiz askoz harago joan. Urte honetan zehar, aldiz, behin eta berriz topatu dut neure burua. Marraztu eta zerbait topatu duzula sentitzea itzelezko poza da".

"Marraztu eta zerbait topatu duzula sentitzea itzelezko poza da"

Arkatzagaz, pastelagaz zein akrilikoagaz, formatu ertain eta txikian egindako koadroak, bai eta zuri-beltzekoak ere, ipiniko ditu Gorroño erakusketara horretan.

Berbekin adieraztea zail egiten zaion sentipen, bizipen eta sentsazioak adierazteko baliatzen du Jon Gorroño margogintza: "Hitze-kin trabatu egiten naiz sarri, galdu egiten naiz batzuetan ideien munduan, eta artea hainbat gauza adierazteko modua da. Denok eskura daukaguna, gainera".

Hainbat horma-irudi ipiniko ditu erakusketan, eta espaziora moldaturiko beste hainbat koadro.



Karrika antzerki taldeko lagunek antzezlan laburra eskainiko dute inaugurazioa.

Bere lanak erakusteko zabaldu zuen webgunea, [www.jongorrono.com](http://www.jongorrono.com), eguneratzeko eta beste hainbat ekimen abiatzeko asmoa dauka datozen asteetan, Jon Gorroño.

Arkatzagaz, pastelagaz zein akrilikoagaz eginiko koadroen bilduma da

Art Leku marrazketa taile- rrean irudimenagaz jolas egiteko gonbita luzatu zuen Jon Gorroño iaz, eta honen aurretik, Arteka liburudendan ere ipini zituen bere lanak ikusgai. ■ I.E.



## "Aldaketa pertsonalek eragin handia daukate emaitzan"

Marrazketaren funtzio terapeutikoaz egin du artista gazteak berba, eta denok eskura dugun adierazpidea dela ere azpimarratu du

"Azken urtean aldaketa sakon pare bat bizi izan ditut maila pertsonalean, eta uste dut aldaketa horiek eragin handia daukatela emaitzan", dio Jon Gorroño. Terapeuta batengana joaten eta yoga egiten hasi da aurten. Eta oso pozik dago. "Oso inportantea izan da aldaketa hori niretzat, eta zuzenean izan ez arren, eragina dauka obran", dio marrazkigileak.

Artearen, kasu honetan marrazketaren, funtzio terapeutikoaz egin du Durangoko artista gazteak berba, eta aipu bat hartu du ahotan: "Picassok esaten zuen, arteak arimaren

egunerokotasunari hautsa kentzen diola, eta ideia horregaz bat nator. Uste dut oso despistatuta gabiltzala, hara eta hona arineketan". Tresna hau edukiko ez balu "bizitzan funtsezkoak diren gauza asko" oharkabean pasatuko litzaizkiokeela uste du Gorroño. Tresna hori denok eskura daukagula azpimarratu du.

Terapeuta batengana joaten eta yoga egiten hasi da Gorroño, aurten

LIBURUA > AURKEZPENA

# Kriskitin taldearen historiari buruzko liburua prestatu dute taldelanean

Abenduaren 4an, Durangoko udal liburutegian aurkeztuko dute 'Kriskitinek 25 urte' liburua

Dantzari, dantzazale, folklozeazale, musikari, eta lagun guztiak gonbidatu dituzte Kriskitin taldekoek liburua berriaren aurkezpena. Abenduaren 4an, 19:30ean aurkeztuko dute *Kriskitinek 25 urte* liburua, Durangoko liburutegian. Aurten Durangoko Kriskitin dantza taldearen 25. urteurrena

dela-eta, hainbat ekitaldi egin dituzte urtean zehar Kriskitin taldearen inguruko lagunak, eta liburua hau taldelanean prestatzen ere aritu izan dira. Hogeita bost urte hauetan taldeak egindako hainbat ekintza eta bidaia kontatzen dituzte, esaterako, *Kriskitinek 25 urte* liburuan.

Dantzarako erabiltzen dituzten jantzien desfilea, erromeriak, eta jaiak egin dituzte, besteak beste, aurten, Kriskitin dantza taldearen urteurrena ospatzeko. Abenduaren 15ean egingo dute egitarauko azken ekitaldia. Bazkari erromeria egingo dute, Plateruenean. ■ I.E.

MUSIKA > TXAPELKETA

# Trikitilari gazte onenak, domekan, Zaldibarren

Zortzi bikotek joko dute Olazar frontoiko final horretan



Azaroan Azkoitian eta Aramaion jokatu dituzten kanporaketetan puntu gehien batu duten zortzi trikitilari bikoteak ariko dira Zaldibarko Euskal Herriko trikitilari gazteen finalean. San Andres jaien barruan jokatu dute finala, abenduaren 2an, 17:30ean hasita, Olazar pilotalekuan.

Zortzi sari banatuko ditu epaimahaiak: 330 eurokoa lehenengoa. XXI. edizioa du Euskal Herriko trikitilari gazteen lehiaketak, eta guztietan Zaldibarren jokatu dute finala. Azken urte bietan, Etxalarreko Elizagoien ahizpe jantzi dute txapela, Zaldibarren. ■ I.E.

Abenduaren 2an,  
17:30ean hasita  
jokatuko dute finala

## GEURE DURANGALDEA

Jon Irazabal  
Gerediagako kidea  
jon@gerediaga.com



## Azulejoak eta enterradorea dela eta...

Orain dela egun batzuk nire zaletasunetariko bat burutzen, hau da egunkari zaharrak begiratzuz, Durangori buruzko pare bat "altxor" aurkitu nituen horiztutako orrietan. Bata ez zitzaidan hain arraroa egin, ohituta gaudelako horrelakoak ikusten historian zehar; berezitasun bakarra zen Durangori buruzkoa zela, eta ezagutzen dugun txoko bati buruzkoa, hain zuzen ere.

1937ko azaroaren 28an Madrilgo "Domingo" astekarian Luis Antonio de la Vegak, falangista bilbotarrak, eskatzen zuen Kanpatorreoste eta Andra Mariko elizpe txikira dagoen pasabidean dauden azulejoak, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren euskarazko idatzia zutenak, apurtzeko. Argi esaten zuen Durango berreraiki behar zela baina herriko hormak eta durangarren kontzientziak "garbitu behar zirela". Horrelako idatziak 4 abokatu eta 4 apaizen asmakizunak zirela eta argi utzi behar zela gerra irabazleen munduan gaztelaniak bakarrik zuen tokia eta kitto! Gaur egun ikusi ahal dugu edo Durangon ez zutela "Domingo" irakurtzen, edo premia handiagoko lana zeukatela, ze oraindik azulejoek irauten dute.

Beste berri bat ABC egunkariak 1967ko maiatzaren 27an eman zuen: Durangoko enterradoreak udalari 2.000 opor eguneko soldata ordaintzea eskatu zioneko. Udal langileak zioen 1928tik zela hobiratzaila, eta egun bat ere ez zuela jai izan, eta 39 urteetan galdutako oporraldien soldata jasotzeko eskubidea zuela... Udalak erantzun zuen lan askorik ez zuela, eta asteko 3 edo 4 egun jai izaten zuela. Gaia udaleko lege teknikarien esku gelditu zen, eta ez dakit nola bukatu zen. Dakidana da, urte hartako ekainaren 18an Madrilgo Teatro Laran ospatu zutela "alforjas para la poesia" izeneko umorezko olerki emanaldia. Parte hartu zuten hainbat satira-olerkari eta beste batzuren artean "potrojotzaile" famatu bat zegoen, Juan Perez Creus. Honek beste "loretxu" batzuen artean "El sepulturero de Durango" izenburuko satira irakurri zuen. Zoritxarrez ez dut idatzia lortu, nahiz eta pentsatzekoa izan "plater" horrek ez zuela faltan izango gatz eta piperra. Gainera, enterradorea ez zebilen erratuta. Ez da ordaintzen plus bat eguneko 24 orduetan norberaren lanaren erantzunei adi egotearen?

## KRONIKA Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

> Amaia Ugalde

Landako Gunean 800 pertsona batu ziren Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoan. Barre handirik eta txalo zaparrada izugarriarik barik, baina beste batzuetan baino umoretsuagoa izan zen Durangoko finalaurrekoa. Etxahun Lekue finalera joateko txartela lortu zuen 563,5 puntu-gaz. Bi puntu gutxiago lortu zituen Igor Elortzak. Fredi Paia hirugarren gelditu zen puntu erdi gutxiagaz. Hirurak pasatuko dira, zurrerik, finalera.

Lekue irabazlea nahiko orekatuta ibili zen, nahiz eta askorik ez nabarmendu. Paiak jardun zuen barregarri eta bizkorren, eta Elortzak, makaltxo ibili ostean, kartzelakoan egin zuen distira.

Barre egiteko beste batzuetan baino tarte gehiago egon zen Durangon. Kartzelan, sarri egoten

Paiak jardun zuen ateraldiekin bizkorren; Elortza makaltxo ibili zen

Domekan, Amurizak eta Ugartetxeak kantatuko dute Gernikan

diren gai triste eta sakonak beharrez, gai positiboa izan zuten bertsolariak: "Dei bat jaso duzu, telefonoa eskegita, ahotik irribarra ezin kendu zabilta".

Lekuerena izan zen kartzelako lanik hunkigarriena; bikoteak deitu zion, haurdun zegoela kontatzeko. "Bizitza igual aldatuko iat / baina ziur hoberako" eta neska-laguna ikusteko irrikan zegoen, estu-estu besarkatzeko. Arrate Ilarok eta Jone Uriak lanpostu eta bekak izan zituzten berba. Gorra Ostolazak nahiko saio ona egin eta gero, urrundu egin zen pixka bat, Artur Masen emaztearen paperean. Fredik Sevillako lehengusaren deia jaso zuen, bertsotarako animoak emateko, guztiak mareatu eta amaieran ezpatagaz zartada sartzeko: "Ba arrazoi du, bertsolariak / euskal toreroak gara". Elortzari Urkulluk deitu zion, kultura sailburutza eskaintzeko. Kultur planean herri mugimenduari lana erraztuko diola zioen. Horretan jardutea izango litzateke "botaten naben arte, egingo dodana".

Domekako kanporaketan erabakiko da zer zortzi bertsolarik kantatuko duten finalean. Gernika-Lumon kantatuko dute Miren Amurizak, Beñat Ugartetxeak, Ibon Ajuriak, Iratxe Ibarrak, Pello Ormazabalak eta Joseba Artzak.

# Landakon umore doinuan jardun dute "euskal toreroek"

Etxahun Lekue izan zen lehenengoa Durangon; Elortza eta Paia ere finalera joango dira



MUSIKA > AURKEZPENA

# Lagunartean aurkeztuko dute, gaur Toubkal taldearen 'Nights of fun'

Traña-Matienako Doherties tabernan aurkeztuko du Iban Gorritik, lagunek inguratuta kaleratu duen bigarren diskoa

**T**raña-Matienako Doherties tabernan aurkeztuko dute Toubkal proiektuaren bigarren diskoa, *Nights of fun*. Ekitaldia gaur izango da, 20:30ean. Diskoko kanten zuzenkorik ez dute egingo emanaldi horretan, baina *Ramones go to universe* kantaren

Iditu Records-en eta Arteka liburudendan dago diskoa salgai

bideoklipa aurkeztuko dute, besteak beste. Iban Gorritik (Durango, 1970) zuzendu du bideoklip hori, Iker Vianak grabatu egin du eta Iñigo Achak editatu egin du. Londresko metro geltoki bat irudikatu zuten bideoklip horretarako, Eroski supermerkatuara doan

tunelean gaez grabatuta, eta Durangaldeko hainbat lagun agertzen dira bertan. Bestalde, Iñigo Acharen film labur bat emango dute aurkezpenean, Toubkal taldearen soinu banda daukana. Javi Fernandezek bakarriketa bat eskainiko du, eta Andoni Ruiz *Txululuk* ere eskainiko du antzezlan labur bat. Hitzordu hori aprobetxatuko du, Iban Gorritik, "Toubkal familiako" lagun guztiei esker-erak emateko.

Zortzi kanta, 1989 eta 2012 urteen bitartean egindakoak, eta *bonnus track* bezala kantu antifrankista bat ere jasotzen du *Nights of fun* diskoak: "Gaur egun oraindik ere frankismoa pairatzen dugun guztiontzako da kanta hori", dio Gorritik. Durangoko kartzelan preso egon zen Rosario *La Dinamitera* borrokari antifaxistaren eta antifaxista guztien omenez egindako kanta da.

Iban Gorriti bera kide zuen Martxoak 31 taldearen ingurukoak dira diskoko kanta batzuk, eta *Surfin Laga* izenekoa da berriena, aurtan egindakoa. Bestalde, The Unfinished Simpathy Gorritiren talde kuttunaren bertsio bat ere badakar diskoak: Zain taldeak jotzen du kanta horretan.

Lander Petralanda baterian, Izaskun Camiñas koroak egiten eta Iban Gorriti dira lehenengo diskoetik mantentzen diren kideak. *Nights of fun* disko berriaren grabazioan, baina, Zain taldeak, Tres41 taldeko Mario Cosmek, Sugoitaldeko Mikel Quesada gitarristak eta Julio Veigaren teklidak ere jardun dute.

"Nahi duena sar daitekeen familia da Toubkal", azaldu du Iban Gorriti proiektuaren sortzaileak. Horrela batu zaio horrenbeste lagun: "Ez dakit krisiagatik edo zergatik, baina gure odola hozten dabiltzala ikusten dugu, eta odol beroko jendea behar dugu".

"Gure odola hozten dabiltzala, eta odol beroko jendea behar dugu"

Libretoan, kanten letrak barik Gorritik idatziriko kantei buruzko testuak daude jasota: "Nire bizitzako gauza asko daude hemen". Badaude testu poetikoak, eta bizipen pertsonalak zein bidaiak kontatzen dituztenak. "Batzuek ukitu filosofikoa dute, eta ez nekien halakorik neukanik ere!", dio.

**Semea eta diskoak**

Aiur semearen garapenagaz konparatzen du Gorritik diskoarena: "*Days of van* lehenengo diskoa ume ixil eta lasai bat bezalakoa zen; umeak urte bi dauzka orain, eta esnatzen denetik dena da alaitasuna: *Nights of fun* hau bezala".

Umeek lez, diskoak ere alaitasuna kutsatzea gura lukeela aitortu du egileak. Hala, azal koloretan eta alaia egin diote diskoari: Javier Arregi 'Txori' diseinatzailerak egindakoa da, eta komiki itxura dauka.

Durangoko Arteka liburudendan eta Iditu Records-en dago diskoa salgai, baina aurrerantzean Durangoko beste taberna batzuetan eta Bilboko Fnac dendan ere ipiniko dute *Nights of fun* jendearen eskura.

Durangoko Azokan Gerediaga elkartearen erakusmahaietan lekutxo bat egin diezaizoten saiatuko dela ere esan du kazetari eta musikariak: "Nire semea da Gerediaga elkarterako kiderik gazteena: egunak zituela egin nuen Aiur Gerediagako kide". ■ I.E.



Toubkal egitasmoan lagun izan dituen guztiak eskertu gura ditu Iban Gorritik.

## Musikari eta lagunak, lagun musikarien, kolaborazioagaz


Durangaldeko hainbat musikarik parte hartu du grabazioan

Disko guztia gaez egindakoa da: "Ahotsak eta koroak 17:00etatik 05:00etara grabatu genituen egun batean", kontatu du Gorritik. Hilabetean zehar gauari orduak lapurtuta sortu dute diskoa, Durangoko Iditu Records estudioetan.

Hainbat musika taldeetako lagunek kolaboratu dute: MPB, Martxoak 31, Zain, Zebel, Alerta, Poliputos, Sugo, Seiren, Yoko Out eta Zea Mays, besteak beste.

Grabazioa egiten oso ondo pasatu dutela azpimarratu du Iban Gorritik: "Pozgarria izan da grabazio prozesu guztia; jende guztia etorri da gogo itzelagaz".

"Bizi dugun errealitatean, zerbait positiboa, optimista eta energiaduna behar genuela ikusi dut", azaldu du proiektuaren sortzaileak. Diskorako pentsatutako kantuak ere horrelakoak dira, bizipoza transmititzen dute.



### PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



AZAROAK 30 22:30ean  
ITZALEN SUA + DIAVLVS  
IN MVSICA. LIBURUAREN  
AURKEZPENA. Sarrera: 3-10 euro.

ABENDUAK 1 22:30ean  
WILLIS DRUMMOND +  
MUTURBELTZ + ELVIS'KAINO DJ.  
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

ABENDUAK 2 17:00etan  
IRRIEN LAGUNAK  
EGUZKIAREN BIDAIA.  
Sarrera: 5-3 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**JUDITH F. BABIA**  
Ganso & Cia

Azaroak 30 • 20:00  
Abenduak 1 • 18:00

San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

# Herritarren parte-hartzeagaz hiri hondakinen bilketa zerbitzua hobetzen dabilta

Birziklapena sustatzea eta gaien arabera bilketa eraginkorragoa izatea da Durangaldeko Amankomunazgoak eratutako parte-hartze foroen helburua

Hiri hondakinen bilketa zerbitzua hobetzeko Durangaldeko Amankomunazgoak prozesu parte-hartzailea jarri du martxan. Sistema-teknikoki hobetu gura izan dute, eta egin litezkeen aldaketek herritarrengan eragina dutenez, Durangaldeko bizilagunekin hainbat batzar deitu dituzte. Guztira, hamabost foro deitu dituzte. Hamahiru egin dituzte dagoeneko, eta Atxondoko batzar bigelditzen zaizkie egiteko. Abadiñok, Atxondok, Elorriok, Garaik, Iurretak, Izurtzak, Mañaria eta Zaldibarrek dihardute egitasmoan, eta 2013an ere lanean jarraituko dute.

## Auzoak jomugan

Hiri hondakinen bilketa hobetzeko, Amankomunazgoak auzoetan jarri du arretagunea. Izan ere, sistema hobetzeaz gainera, auzoetan zaborra gaika sailkatzeko aukera zabaltzea da proiektuaren beste helburuetako bat. Durangaldeko auzoetan sakabanatuta dauden hainbat zaborrontzi birrantsolatu eta leku estrategikoetan jarri gura dituzte. Ahal den kasuetan, zaborrontziak egokitzeko isleta horiek auzoen sarreretan ipintzea da

## Abadiñok, Atxondok, Elorriok, Garaik, Iurretak, Izurtzak, Mañariak eta Zaldibarrek dihardute egitasmoan

asmaoa. Gune horietan Amankomunazgoak kudeatzen duen zaborraz gainera (errefusa eta papera), beste zaborrontzi batzuk ere jarriko dituzte, beira eta plastikoa, esate baterako. Auzoetako zaborra

biltzeko zailtasun ugari daude, eta biltzaileen lana erraztu eta bilketa eraginkorragoa egitea dute jomugan. Gogoan izan behar da lan eremu zabal eta anitza dutela kamioiagaz kontainerrak jasotzera joateko. Auzoen orografiak eta baserriz baserri zaborra batzera joan beharrak zaildu egiten du lana.


Amankomunazgoko teknikariek azaldu dutenez, birziklapenaren kultura sustatzen dihardute. "Kultura aldaketa bultzatuz, hiri hondakinak gehiago sailkatzearen aldeko apustua egin dugu." Ildo horretatik, hondakinak batzeko tarteko beste gune batzuk jarriko dituzte, zerbitzua hainbat arlotan hobetzeko: segurtasunean, batzeko denboran, ingurumenean eta ekonomian.

Auzoetan dauden errefusa biltzeko kontainer txiki gehienak (1.000 litrokoak) kendu gura dituzte eta 3.200 litroko handiak jarri. Aldaketa horrek hainbat abantaila izango ditu. Ismene Mandaluniz Udaltalde 21eko teknikariaren esanetan "zarata eta zikinkeria arloetan hobekuntza ekarriko du honek, baita langile eta erabiltzaileen segurtasunean ere". Bilketa sistema berrantolatuz Amankomunazgoko beharginen lana ere beste modu batera banatuko dute. Neurri honekin, beste lan batzuegiteko aukera izango dute.

Gaien arabera bilketa sistema berria martxan jartzeko hiru rogei kontainer jasoko ditu abenduan Amankomunazgoak. Horietako hogeitaurdinak izango dira, kartoia eta papera batzeko. Beste berrogei, berriz, berdeak izango dira (errefusa).

## Datu esanguratsuak

Amankomunazgoak Durangaldeko zortzi herritan biltzen duen errefusa kantitateari dagokionez, 2010. urtean 7.315.300 kilo jaso zituzten eta 2011n, berriz, 7.234.320 kilo. Datu horiek alderatuz gero ezberdintasun handirik egon ez arren, azken urteotako joera da, zaborra geroago eta gehiago sailkatzea eta errefusa kantitatea jais-tea. 2001. urtean, esaterako, 9.000.000 kilo baino gehiago jaso zituzten.



## "Argi dugu auzotarren iritzia jaso barik, ezin dugula aldaketarik egin"

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek foroetan parte hartzen dihardu

### Zelan hartu zenuten zabor bilketa-aren inguruan foro parte-hartzaileak eratzeke erabakia?

Lehenengo eta behin, gaia oso sentigarria zela ikusten genuelako foroak eratzea pentsatu genuen. Azkenaldi honetan, askotan entzun izan dugu zaborren kudeaketaren inguruan hainbat eztabaida, eta guk argi geneukan ez genuela ezer egingo jendeak esku hartu barik. Proiektuak auzoetako zaborrontzien kokapena birrantsolatzeari dakar, eta argi daukagu auzotarren iritzia jaso gabe ezin dugula aldaketarik egin. Bestela kexaka guregana etorriko lirake, eta arrazoiarekin, gainera.

### Zelan joan dira auzoz auzo egin dituzuen batzarrak?

Ba egia esan, oso ondo. Ikusi dugu jendea informatuta dagoela, eta batzuetan ez dira ados egon gure proposamenekin. Kasu batzuetan borrokatu egin dira, zentzu onean, beraien arazoak adieraziz, eskaerak eginez... Beraien kezka entzutera joan gara eta iritzi guztiak jaso ditugu. Orokorrean, antolatutako foro guztietan harrera ona izan da. Baina, agerian geratu da auzo batzuetan beste lan berezi bat egin behar dugula gure proposamena aurrera ateratzeko, eta horretarako ere prest gaude.

### Udaletako arduradun eta teknikariek elkarlanean zabiltzate. Zelan erantzuna jaso duzue udalen aldetik?

Ni oso pozik nago eta eskertzekoa da beraien inplikazioa eta jarrera, bai teknikariena bai eta udal arduradunena ere, edozein alderditakoak izanda. Hori nabarmendu nahiko nuke. Proiektu hau ez da Amanko-

"Orokorrean, antolatu ditugun foro guztietan harrera ona izan da"



# Birziklapena hobetzeko hainbat aholku baliagarri

Zaborra botatzerakoan sortzen diren zalantzak argitzeko gomendioak eman ditu Amankomunazgoak

Zer zaborrontzitarra bota behar dira ura edateko erabiltzen ditugun edalontziak? Eta supermerkatuan erosi dugun ardo botila hutsa? Behar bezala birziklatzeko, irizpide orokorretatik kanpo, hainbat zalantza sortzen zaizkigu sarri askotan. Hona hemen hainbat gomendio argigarri, zaborrontzitarra hondakinak botatzerakoan ideiak garbi izan ditzagun. Birziklapena kulturatuta, ingurumenarekiko erres-

petuagaz lotuta dagoena. Behin ohitura hartutakoan, erraz-erraz egiten dugu etxean gaikako banaketa, gauza bakoitza dagokion zaborrontzitarra botatzeko. Amankomunazgoak ohiko errefusaren kontainer berdeak eta papera eta kartoia batzeko kontainer urdinak kudeatzen ditu, baina hala ere, gainerako kontainerren erabilera bultzatzen du. Denon artean errazagoa da!



## Zelulosa eta papera: bakoitza bere ontzira

Sukaldeko papera edo komuneko papera ez dira kontainer urdinerara botatzen. Zelulosaz eginda daudenez, errefusaren edukiontzi berdera botatzen dira. Argi ibili beraz, paperaren eta zelulosaren arteko ezberdintasunagaz.



## Kristala eta beira bereizi behar dira

Ura edateko erabiltzen den edalontzia ez da beira, beraz, errefusaren kontainerrean bota behar da. Ontzi moduan produkturen batekin erosi dugun beira potea, oster, beiraren kontainer berdera bota behar da.



## Beira eta metala: bakoitza bere aldetik

Beirazko ontziek metalezko tapak dituztenean gauza bakoitza bere aldetik birziklatu behar da. Metalezko estalkiak ontzi horira bota behar dira, eta beirazko ontzi hutsa, beiraren kontainer berdera bota behar da.



## Grapak aurretik kenduta, orriak kontainer urdinera

Grapatuta ditugun orriak birziklatzeko, lehenik eta behin, kendu egin behar dira grapak. Paperak kontainer urdinera bota behar dira eta grapak, berriz, errefusaren kontainer berdera bota behar dira.



## Zilarrezko papera eta film-a edukiontzi horira

Zilarrezko papera eta film-a kontainer horira bota behar dira. Material bi horiek, plastiko eta ontziekin batera birziklatzen dira, beraz adi ibili birziklapenerako sailkapena egiten dugunean, ez dira errefusa!

munazgoaren kapritxo bat izan, hemen hainbat kontu daude kokan: ingurumena, kultura aldaketa, ekonomia... Eta zelan edo halan, onurak denontzat izango dira: sensibilizazio gehiago zaborrak sailkatzeko eta berrerabiltzeko, beste kudeaketa sistema bat, gastuak murriztea...

### Birziklapenaren inguruan herritarrek badute nahikoa informazio gure eskualdean?

Proiektu honetarako triptiko bat sortu dugu, bai eta bideo bat ere, foroetan ikusteko. Triptikoak Durangaldeko etxe guztietara bidaltzen saiatu gara, Durangon izan ezik, bere sistema propioa daukalako. Batzuek jaso ez dutela esan digute, hala ere, berriro bidali ditugu udaletxeetara, informazio guneetan jartzeko. Bideoan zaborraren kudeaketari buruzko informazio guztia eskaintzen dugu, eztabaidari ekin aurretik ikusteko.

# EDERTASUN GIDA

## ILEAPAINDEGIAK



- Ana Camarero
- Estetika zentroa dauka Durango

## Berehalako eragina

Produktu berri baten informazioa dakarzu gaurkoan.

Time Release produktuak erabiltzen ditugu gure estetika zentroan, eta azalean berehalako eragina daukate. Kosmetologia aldetik, eraginkortasun handieneko osagaiekin egindakoak dira. Berehalako emaitza hori ikusi egiten da.

### Zein da lortzen den emaitza?

Berregituratzeko efektua lortzen dute azaleko kapa sakonetan. Egunean behin, pare bat tanta emango ditugu aurpegian eta saman, eta barneratzen utziko diogu. Gero, ohiko krema emango dugu azalean. Eguneroko tratamendu horrek efektu bizkorra eragingo du.

### Eta eragina mantendu ahal da?

Emaitza denboran zehar mantentzeko, tratamendu intentsiboa egin behar dugu. Bost astean, goizean eta gauean emango dugu gure kontzentratua. Bost aste pasatzean, astean bi edo hiru aldiz ematen segitzea gomendatzen dugu, produktua amaitu arte.

## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**ZIRKIN ESTETIKA**  
Jaione Llanos San Anton

**AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK**  
MANIKURA ETA PEDIKURA  
DEPILAZIOA  
LASER DEPILAZIOA  
BETILEETAKO PERMANENTEA  
ETA TINTEA  
...

Bruno Mauricio Zabala 5  
Tel.: 692 150 173 - Durango

**Ana Camarero**  
• estetika zentroa •

**LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA**

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango



@anbotokirola

# KIROLAK >



David Etxebarria izango da Cafes Baque-Conservas Campos amateurren txirrindulari taldeko zuzendaria.

## TALDEKO ZIKLISTAK

### ZUZENDARIA:

- David Etxebarria

### TXIRRINDULARIAK:

- Peio Goikoetxea (Debabarena taldetik dator)
- Javier Goikoetxea (Umpro taldetik)
- Mario Gonzalez eta Jose Manuel Gonzalez (Kamargo taldetik)
- Antonio Angulo (Azysa taldetik)
- Iñigo Ojeda, Paul Usabel, Eduardo Armengol eta Mariano Rodriguez (Koplad Uni 2 taldetik)
- Jonathan Bilbao (Mungialdeko taldetik)
- Julian Barrientos (Sopelako taldetik)
- Alex Garcia (Cafes Baquen ibili zen iaz)

## “Beste pauso bat emateko proiektzioa duten txirrindulariak fitxatu ditugu”

Berango, Leioa eta Erandioren artean sortutako Elkar Kirolak proiektura batu da Cafes Baque. Beheko mailetako taldeei amateurretako Cafes Baque-Conservas Campo gehitu zaie aurten. David Etxebarria da talde horretako zuzendaria.

**Azkenengo urte biak Sopelako Koplad Uni2 taldean eman dituzu. Zelan sortu da Cafes Baque-Conservas Campos taldera batzeko aukera?**

Amateurretan txirrindulari gazteak zituen Koplad Uni2 taldeak. Gehienak gazte mailako lehenengo eta bigarren urteko txirrindulariak ziren. Datorren urtean taldeak ez zuela jarraituko jakinarazi zuten. Bien bitartean, Cafes Baque eta Elkar Kirolak negoziatzen zebiltzan. Talde barik geratu nintzela jakin zutenean, deitu egin zidaten.

**Zergaitik onartu duzu eskaintza? Zerk erakarri zaitu?**

Elkar Kirolak elkarteak gauzak oso ondo egin dituela uste dut. Hasiera-hasieratik argi adierazi

nien zer eta zelan gura nuen, eta berba egiteko eta adostasunera heltzeko prestutasuna erakutsi zuten. Horregatik onartu dut.

**Elkar Kirolak-ek hainbat talde ditu gaztetatik nagusietara arteko mailetan.**

Orain 15 urte inguru, Cafes Baque txirrindulari taldeak gaztetxoetatik nagusietara arteko hainbat talde izan zituen. Ondoren, afizionatu mailako taldeak bakarrik geratu zen, eta horrela ibili izan da iaz arte. Berrito ere sasoi bateko egoerara bueltatu gura zuten, eta horretarako biderik errazena dagoeneko indarrean zegoen egitura batera batzea zen. Elkar Kirolak-ek baldintza horiek betetzen zituen.

**Taldearen staff teknikoa guztiz berria da. Zer hartu-eman duzu eurekin?**

Xabier Artetxe —prestazaila fisikoa— laguna dut orain dela hamar bat urtetik hona. Seguros Bilbao eta Caja Ruralen gauzak ondo egin ditu. Nik erabateko konfiantza dut berarengan eta berak ere bai niregan. Berak Javier Garcia ezagutzen zuen —manager orokorra— eta bere bitartez ezagutu nuen Elkar Kirolak elkarte, eta zelan lan egiten zuten.

**Txirrindulariei dagokionez, ia denak berriak dira.**

Bai. Taldearen izena ezaguna da, baina proiektu berri bati buruz ari gara. Bide horretan txirrindulari ia denak eta gainerako kideak berriak dira. Proiektzioa duten txirrindulariak fitxatu ditugu, baina dagoeneko garaipenak edo emaitza interesgarriak izan dituztenak. Aurten pauso berri bat ematen saiatu gara. Helburuak hiru urteko epealdira begira markatu ditugu, baina garaipenak lortzeko taldea osatu

dugu, eta uste dut hurrengo denboraldian garaipen bat baino gehiago lortuko dugula.

**Nortzuk izango dira taldeburuak edo irabazteko erantzukizun handiena dutenak?**

Badaude bizpahiru izen. Beharbada izenik garrantzitsuena Mario Gonzalez kantabriarrarena da. Kamargo taldetik dator. Orain urte bi, taldea erlojupeko Espainiako txapeldun geratu zen 23 urte azpiko mailan. Afizionatuetan dabilen urte bietan lasterketak irabazi ditu. Marioren anaia Jose Manuel, Antonio Angulo eta Iñigo Ojeda ere aipa daitezke izen garrantzitsuenen artean. Angulo kantabriarra da eta Azysa taldean ibili zen iaz. Ojeda errioxarra da eta nire taldean ibili zen.

**Fitxaketak egiterako orduan, zer irizpide erabili duzue?**

Beste pauso bat emateko bidean dauden txirrindulariak fitxatu ditugu. Dagoeneko zer diren erakutsi dutenak, baina oraindik gora egiteko proiektzioa dute-

nak. Mario Gonzalez da salbuespena, dagoeneko goian dagoelako. Horregatik lasterketen egutegian Euskal-Nafarroa txapelketan 23 urte azpiko lasterketei lehentasuna emango diegu. Garaipenen aurretik, profesionaletarako txirrindulariak hezi gura ditugu. Garaipenak garrantzitsuak dira, baina ez niretzako edo taldearentzako. Apurka-apurka profesionaletara heltzeko bide horretan dira garrantzitsuak.

**Taldeak Berangon du egoitza. Zer lotura du talde berriak Durango edo Durangaldeagaz?**

Cafes Baque gura duena da, taldearen izena aipatzean, jendeak Durangogaz lotura egin dezala, zelanbait esanda, babesletzagaz Durango izena txertatzen dio taldeari ere. Zaleek Cafes Baque Durangoko enpresa dela identifikatuko dute, eta hala, Durangogaz eta Durangaldeagaz lotura egin.

**Elkar kirolak-ek beheko maila denak ditu, baina afizionatuetatik profesionelatarako bidea zelan erraztu daiteke?**

Estatu mailan talde gutxi dago: Movistar eta Euskaltel-Euskadi. Hain gutxi egotera, gatxa da. Gure asmoa da, nazioarteko taldeekin ere berba egitea, eta aukeren esparrua ahal den gehien zabaltzea gure txirrindularientzat. Oraindik ez dugu erabaki zelan landuko dugun alderdi hori. ■ J. D.



# GR Mikeldi ibilbidearen diagnostikoa egingo dute

Sapubike klubak ibilbidea zelan dagoen jasoko du txostenean; ondoren, erakundeen inplikazioa bilatuko dute berreskuratzeko



Sapubike txirrindulari kluba 36 kidek osatzen dute gaur egun. DurangoMTB

Durungaldearen eraztuna da GR Mikeldi mendi ibilbidea. Izurtza, Mañaria, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Berriz, Zaldibar, Garai, lurreta, Zornotza eta Durangoko lurretatik bueltan-bueltan eskualde ia osoa hartzen du barruan. 86 kilometroko ibilbide baliotsu hori, baina, egoera txarrean dago: sasiak, hesiak, zuhaitzak ibilbide erdian... GR Mikeldi ibilbidea ondare garrantzitsua dela iritzita, Durangoko Sapubike txirrindularitza klubeko kideak prest daude berreskuratzeko bidean lehenengo pausoa emateko.

Hala, 2013rako helburu bi dituzte: ibilbide osoko egoeraren diagnostikoa egitea lehenengo, eta ibilbidea berreskuratzeko, erakundeen inplikazioa bilatzea ondoren.

Gaur egun kluba osatzen duten kideak lau taldetan bana-

## 2014an ibilbide osoa egiteko martxa antolatu nahiko lukete

tuko dituzte, eta talde bakoitzak ibilbideko tarte bat aztertzeke ardura izango du. Ibilbidea non eta nola hobetu daitekeen jasoko dute txostenean, betiere, argazkiekin lagunduta. Ondoren, ibilbideak zeharkatzen dituen udalei eta Bizkaiko Foru Aldundiari erakutsiko diete txostena. Durangoko Udalgaz batu direla eta "oso interesatuta" agertu direla adierazi du Iker Sagardui klubeko kideak. Helburua ahalik eta erakunde gehien inplikazioa bilatzea da, berreskuratzeko erantzukizuna erakundeek euren gain har dezaten.

2014rako GR Mikeldi bidea berreskuratzeko egotea da mountain bike klubeko desioa. Hala izanez gero, 2014an, ibilbide osoa egiteko martxa bat antolatzeko gustatuko litzaieke.

### Sei irteera 2013an

Sapubike kluba (ezagunagoa da Durango MTB taldea legez) hainbat irteera prestatzen ari da datorren urterako. Bide horretatik Araba, Gipuzkoa, Urdaibai ingurua, Errioxa eta Zamora alderako irteerak antolatzen ari dira: "Mountain bikegaz gozatuz inguru berriak ezagutzea da helburua", azaldu du Sagardui.

Horrez gainera, orain arte egin duten moduan gaez irteerak egiteko jarraitzeko asmoa dute klubeko kideek. Irteerak prestatzen diren ahala euren webgunean jakinaraziko dituzte: [www.durangomtb.com](http://www.durangomtb.com). ■ J. D.

# Zaldibarko txirrindulari elkarteak mendi martxa antolatu du domekan

Ibilbide bi prestatu dituzte; 21 eta 34 kilometroko bana

Zaldibarko Lagunartea Txirrindulari Elkarteak mendi bizikleta martxa antolatu du domekan, 10:00etan, udaletxe paretik

irtenda. Ibilbide bi prestatu dituzte: 21 kilometroko bat eta 34 kilometroko luzeago bat. Goierri auzotik aurrera, Amezor-

be, Aixola presa, Santimariñe Zahar eta Miota ingurutik ibiliko dira mendi martxako parte hartzaileak.

Izen-ematea doakoa da. Egunean bertan apuntatu daiteke lasterketa hasi baino lehentxoago. Internet bidez izena eman gura duenarentzako gaur izango da azken eguna: [zaldibarl lagunartea.blogspot.com](http://zaldibarl lagunartea.blogspot.com). Blog horretan ibilbideetako track-ak ere eskuragarri ipini dituzte aurten. Lasterketaren hasieran zein amaieran Zaldibarko txirrindularitza elkarteko kirol materiala erosteko aukera eskainiko dute: mahuka luze zein laburreko elastikoak, culotte-ak, zirak, eskularruak... ■ J. D.



Iazko mendi martxako une bat.

## ADITUAREN TXOKOA

Carlos Perez  
Areto futbola



## Igoera pozteko arrazoia da?

Futbolera ere heldu da krisia. Areto-futbola —futbolaren anaia pobrea— babesleen galera pairatzen ari da. Azken urteetan, talde askok uko egin diote nazional mailan jokatzeari, gastuei ezin dietelako aurre egin. Beste batzuek, gurago dute ez igon, kantxan igotzeko aukera irabazi badute ere. Iaz talde batek ere ez zuen igo nahi izan Bigarren B mailara.

Hirugarren mailan jokatzeko behar den federazio arloko aurrekontuak hirukoiztu egiten dira Maila gorenekoekin alderatuta: fitxak, epaileak, izen-emateak, entrenatzaileak... Talde bat Euskal ligatik Hirugarren mailara igotzen denean, bikoiztu egiten zaizkio gastuak. Epaileen gastua 115 eurotik 235era pasatzen da; jokalarien fitxa 88 eurotik 158ra eta delegatuarena 5etik 228ra (azken hau igoera kuriosoa da, horren ordain jasotzen diren prestazioak berdinak izaten jarraitzen baitute). Izen-emateen gastuak ere bikoiztu egiten dira. Laburdilduz, igoeraren poza hoztu egiten du, esaterako, 4.000 euro gehiago bilatu beharrak.

Klubak udaletako diru-laguntzen bidez finantzatzen dira; 3.000 eurotik 10.000 euro ingurua doaz udalariaren, bazkideen edo babesleen arabera. Jokalarien kuotak ere gero eta handiagoak dira eta denetariko ekintzak antolatzen dira dirua batzeko: errifak, txosnak, kirol maratxoak...

Krisi ekonomikoa larritu ahala, nazional mailako ligak ahalmen ekonomikoa duten klubentzako erreserbatuta geratzen dira. Klub xumeak, aldiz, Espainiako federazioak "beren toki naturala" legez izendatzen dituen txokoa parte hartzera behartuta geratzen dira; futbol erregionalera, hain zuzen.

\* Erredakzioan itzulia

# Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko finalak Cafes Baquen

Cafes Baque pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 19:30ean, lurretan

Cafes Baque pilota txapelketako aurtengo irabazleak gaur erabakiko dira lurretako pilotalekuan. Kadete eta gazte mailako finalak jokatuko dituzte arratsaldeko 19:30etik aurrera. Final bietan gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko partiduak izango dira ikusgai.

Kadeteetan Altuna amezketarrak Arrankudiagako Arandiaren aurka jokatuko du. Finalerdietan, Altunak espero baino errazago kanporatu zuen Dario errioxarra (18-6). Dario kadete

mailako iazko txapelduna da. Arandiak, aldiz, latz sufritu zuen Etxebarria gernikarra menderatzeko (18-15).

Gazte mailako finalean Erostarbe urretxuarra eta Ziarrusta dimoztarra neurtuko dira. Biek ala biek lan handia egin ondoren lortu zuten finalerako txartela. Ziarrustak 22-16 irabazi zion Ortiz mungiarrari, Abadiñon jokatutako finalerdietan. Erostarbe, berriz, 22-17 nagusitu zitzaion Atutxa galdakoztarri. ■ J. D.

# Pisu neurtuko asto probak antolatuko dituzte Mallabian

Abenduaren 7an, 8an eta 9an izango dira probak; irabazleak 390 euro jasoko ditu

Abenduaren 7tik 9ra jokatuko dira, seigarrenez, pisu neurtuko asto probak. Abenduaren 7an, 21:00etan, Lupiortu behekoa, Julen Uranga eta Mañukobenta jabeen hiru asto lehiatuko dira. Hurrengo egunean, ordu berdinean, beste hiru asto ibiliko dira harriari tiraka: Lupiortu behekoa II, Alegria eta Ugaldereen astoak.

Azkenik, abenduaren 9an, 17:00etan, Iñigo Landaluze, Maiora, Iturralde eta Iker Legarretaren jarduna ikusteko aukera izango da. Irabazleak 390 euro, manta, txapela era garai-kurra jasoko ditu. Mallabiko Udalak antolatu du sariketa, eta Txondor Kirol Elkartearen laguntza izan du. ■ J. D.

# OSASUN GIDA



## FISIOTERAPIA

### Zainduz

#### FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32  
mug. 686 906 374

## PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia  
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA  
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO  
tf: 94 620 11 00

## ODONTOLOGIA



#### B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea  
48200 DURANGO  
tf: 94 681 99 51



#### HIRU FISIOTERAPIA

asteleheneretik - ostiralera 08:00 - 21:00  
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4  
48200 DURANGO  
tf. 94 466 94 00



#### GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA  
Kiropodia, Onikopatia, Alterazio  
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea  
48200 DURANGO  
tf: 94 620 36 30



#### J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.  
48200 DURANGO  
tf: 94 681 22 00



#### FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari  
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,  
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.  
48240 BERRIZ  
tf. 94 622 55 93

## ODONTOLOGIA



#### ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren  
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.  
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3  
48240 BERRIZ  
tf. 94 622 50 99

## PSIKOLOGIA



#### JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango  
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728



#### PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA  
&  
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D  
48200 DURANGO

tf. 94 655 00 49 / 695 784 963

# Bizkaia Kirola Saria jaso du Bidezabal atletismo klubak

Bidezabalen emaitzak eta kudeaketan duen kalitatea azpimarratu ditu Aldundiak; Baque Fundazioa ere saritu du erakundeen atalean



Bidezabalgo presidente Aitor Casalek jaso zuen saria klubaren izenean.

**B**idezabalek denboraldian zehar lortu dituen emaitzak onak ez dira oharkabean igaro. Bidezabal Atletismo Klubari eman zioten Bizkaiko Foru Aldundiak eguaztenean banatu zituen Bizkaia Sarietako bat, klub edo elkarte bat bereizteko.

Aldundiak Bilboko Gran Vian duen egoitzan egindako ekitaldian, Bidezabalgo presidente Aitor Casalek jaso zuen saria, klub osoaren izenean. Mikrofonoaren aurrean eskerrak eman zizkion Aldundiari eta saria 30 urteko ibilbidearen fruitua dela adierazi zuen: "Horregatik, urte hauetan denetan klubean modu batera edo bestera

**Aitor Casal: "30 urtez denon artean egindako lanaren fruitua da saria"**

lanean jardun duten denei eskaintzen diegu saria, euren inplikazio barik, gu ez ginatke-elako hemen egongo". Ondoren, krisi sasoi honetan "aurrera egiteko eta borrokan jarraitzeko" eskatu zien Bizkaiko klubari: "Batuetan, arlo ekonomikotik datozen buruko minak, arlo pertsonaleko lorpenekin konpentsatzen dira". Azkenik, Bidezabal babestu duten erakundeei eta

udalei (Durango, Abadiño eta Iurreta) bere esker beroa adierazi zien.

Epaimahaiak hiru puntutan arrazoitu zuen Bidezabali emandako aintzatespena: "Saria eman zaio egiten dituen jardueren maila altuagatik, kudeaketak duen kalitateagatik eta kirol emaitzengatik".

**Baque Fundazioari saria**  
Erakundeen arloko saria Baque Fundazioari eman zioten: "Saria eman gura diogu kirol babesleztan egindako ibilbide luzeagatik, eta bereziki azpimarratu nahi dugu eskola kirolari emandako laguntza". ■ J. D.

## Durango Judo Taldeak Bizkaiko gazte onenak ditu

Judo taldeko benjaminak lehenengo geratu dira Bizkaiko sailkapenean



Durango Judo Taldeko benjaminetako gaztetxo batzuk.

Durango Judo Klubeko gaztetxoek gogotsu ekin diote denboraldiari. Orain asteburu bi benjaminen taldeak Bizkaiko judo sailkapena irabazi zuen. Gaur egun, 26 gaztetxok osatzen dute benjaminen taldea, eta Durango Judo Taldeak berak sortutako Judomat metodologiaren bidez entrenatzen dute. Orain urte bi hasi ziren entrenatzeko eredu propio hori erabiltzen eta, besteak beste, psikomotritate eta mugimenduak lantzen dituzte.

Benjaminen gainera, beste hainbat mailako gazteak ere nabarmendu dira azken asteetan. Amurrioko Nazioarteko Torneoan Eneko Diezek zilarrezko domina irabazi zuen haur-kategorian eta Amaia Murua bosgarren geratu zen kadeteetan.

Bestalde, Durango Judo Taldeak hainbat irteera egingo ditu 2013an. Datorren urteko apirilean Frantziara joango dira, judoaren inguruko topaketa batzuetan parte hartzeko. ■ J. D.

## Beteranoen Gabonetako torneo antolatu du Tabirakok

Tabirako saskibaloi klubak beteranoen Gabonetako Simple Torneo antolatuko du aurten ere, abenduaren 29an. Gizonen partidua 17:30ean hasiko da, eta emakumeena 19:15ean.

Torneoan parte hartu ahal izateko baldintza bi bakarrik bete behar dira: Tabirako Baque taldeko jokalaririk izatea, eta 28 urtetik gora edukitzea.

Talde bakoitzetik 15 jokalaririk egon daitezke gehienez. Izena ematen duten lehen 15 jokalariekin osatuko dute taldea. Izena emateko, honako helbide honetara idatzi behar da: [tabirako@gmail.com](mailto:tabirako@gmail.com). ■ J. D.

## 320 kilora artekoen txapela jantzi du Abadiñok

Denboraldia indartsu hasi du Abadiño sokatira taldeak. Abadiño Bk Goma gaineko lauko lehenengo finala irabazi zuen zapatuan, Zelaietako probalekuan jokaturako finalean. Sokarri sailkatu zen bigarren eta Ibarra hirugarren. Abadiño A bosgarren geratu zen. Abadiño Bk Ibarrenaren kontra tiraldi bat galdu eta gainerako guztiak irabazi egin zituen.

Zapatu honetan 300 kilora arteko txapelketari ekingo diote. Lehenengo sailkapen faseak Beasainen eta Artziniegan jokaturako dituzte. Lauko bigarren eta azken txapelketa norentzat den Ibarren erabakiko dute. ■ J. D.

## Ezinduek kirola egiteko dituzten zailtasunak probatu dituzte

Kirol arloko azpiegiturak kudeatzen dituen EmteSport enpresak ezinduek kirolak praktikatzeke dituzten arazoak ezagutarazteko emateko ekimenak egin ditu asteon, Bizkaiko hamar kiroldegitan; tartean, Elorrikoa eta Abadiñokoa daude.

Asteon kiroldegi horietan egin diren jarduerak denetan ezinduen egoeran jartzeko eskatu diete parte-hartzaile guztiei. Esaterako, spinning eskolak begia estalita eta pilatesekoak belarriak estalita egin dituzte, itsuek eta gorrek zer sentitzen duten jakiteko. Ekimena astelehenean amaituko da, Pertsona Gutxituen Nazioarteko Egunagaz batera. ■ J. D.

## Agenda

**FUTBOLA**  
HIRUGARREN MAILA

**Durango Kulturala - Anaitasuna**

Zapatuan, 17:00etan,

Tabiran

**OHOREZKO MAILA**

**Eiorrio - Gallarta**

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**

**Abadiño - Ugao**

Zapatuan, 15:30ean, Astolan

**HIRUGARREN ERREGIONALA**

**Zaldia B - Sondika B**

Zapatuan, 16:00etan,

Solobarrian

**Iurretako B - San Antonio**

Zapatuan, 17:00etan,

Larrakozelain

**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**

**Iurretako B - Berrio-Otxoa B**

Domekan, 17:00etan,

Larrakozelain

**ARETO FUTBOLA**  
EUSKAL LIGA

**Kurutziaga - Eskoriatza**

Zapatuan, 15:30ean,

Landako kiroldegian

**Abadiñoko Lagun - Meatzari de Gallarta**

Zapatuan, 17:15ean,

Berrizko kiroldegian

**LEHENENGO ERREGIONALA**

**Abadiñoko Gaztetxe - Zuentzat**

Zapatuan, 17:00etan,

Traña-Matienako kiroldegian

**Dantzari - Hegalariak**

Zapatuan, 17:30ean,

Lanbide Heziketa institutuan

**Sapuberri - Zamudio**

Zapatuan, 18:30ean,

Landako kiroldegian

**BIGARREN ERREGIONALA**

**Elorrioko C - Kukuyaga B**

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kiroldegian

**Racing Tolosto - Saltzailleak B**

Zapatuan, 17:15ean,

Landako kiroldegian

**ERRUGBIA**  
ESKOLA KIROLA

**Haur-kategoriako gaztetxoek topaketa**

Zapatuan, 10:30ean,

Elorrioko errugbi zelain

**SASKIBALOA**  
LEHENENGO MAILA (gizonak)

**Tabirako-Baque - Leihok Zarautz**

Zapatuan, 17:00etan,

Landako kiroldegian

**LEHENENGO MAILA (emakumeak)**

**Tabirako-Baque - Caja Vital Kutxa UPV**

Zapatuan, 19:00etan,

Landako kiroldegian

**PILOTA**  
CAFES BAQUE TXAPELKETA (finalak)

**Kadeteak:**

**- Altuna - Arandia**

**Gazteak:**

**- Erostarbe - Ziarrusta**

Barikuan, 19:30ean,

Iurretako pilotalekuan

## AHOTSENEA 06

- 10:30 'Paradisua eta katua' // Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruza AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 11:00 'Katiuxka gorriak' // Josu Bergara ZUZENEKOA
- 11:30 'Euskal Herriko musika argazkilariak' (LIBURUA) AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 12:00 'Ez gara inoiz hilko' // Eraso ZUZENEKOA
- 12:30 'Durangaldeko Musika taldeen bilduma, Vol.2' (cd) eta '2. Greatest Hits Gaua' (dvd) AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 13:00 'Poemak pluralean' // Iñigo Roque eta Fernando Pessoa (LIBURUA) AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 13:30 Zuloak // Zuloak ZUZENEKOA
- 14:00 'Bagoaz, hamaika arrazoi ditugulako, independentziaren aldeko panfletoa' (LIBURUA) AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 14:30 'Gazta zati bat' // Gazta zati bat (SOINU BANDA) ZUZENEKOA
- 15:00 'Hormatik hormaraino' // Eric Dicharry AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 15:30 'Itsas argiak' // Izaki gardenak ZUZENEKOA
- 16:00 'Entzun!' (ALDIZKARIA) AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 16:30 'Double dragon' // Meido ZUZENEKOA
- 17:00 'Martutene' // Ramon Saizarbitoria AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 17:30 'Gaur ez' // Gaur ez ZUZENEKOA
- 18:00 '19 kamera' // Jon Arretxe AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 18:30 'Fruitua' // Estankona ZUZENEKOA
- 19:00 'Independentziaren paperak' // Pako Aristi AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 19:30 'Hoax' // TxN (txoriak negutegian) ZUZENEKOA
- AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 20:00 'Itzalen sua' // Fernando Morillo eta Santi Rodriguez
- 20:30 'Aste nagusi' // Goienetxe anaiak ZUZENEKOA
- 21:00 'Roni' // Roni AURKEZPEN-SOLASALDIA
- 21:30 'Iglu bat basamortuan' // Lauroba ZUZENEKOA

## KABIA 06

- 11:00 Ipuin kontalari inprobisatua, Fede Badiolaren eskutik, (PUBLIKOAK EUSKARA, KULTURA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK UZTARTZEN DITUEN EMANALDI AZTATUOKO DIJ.). AURKEZPEN-A
- 12:30 Tranxmedia proiektua (KORRIKA, EHU ETA ETBREN ARTEKO DIZIPLINA ANITZKO PROIEKTUA).
- 17:30 Ipuin kontalari inprobisatua Fede Badiolaren eskutik AURKEZPENAK
- 18:30 Euskarazko bideojokoetarako mugimenduak hartzeko aplikazioa
- 19:00 'Practice your music' (BALEA)

## IRUDIENEA 06

- ZINEUSKADI: Zinema Euskaraz
- 12:30 'Freddy Igeldegi', Peter Dodd.
- 13:45 'Hanburgesen zaparrada', Phil Lord eta Chris Miller.
- 15:30 Bikoizketa tailerrak. 6-12 urte.
- 17:30 'Rio', Carlos Saldanha.
- MUSIKARIEN TARTEA
- 19:00 Euskarazko bideoklipak buklean.



## PLATERUENA 06

- ELKARRIZKETA ETA MAHAI INGURUA
- 13:00 INDEPENDENTZIA OLATUA Elkarrizketa: Josep Lluís Carod Rovirari Mahai ingurua: Iñaki Soto, Iñaki Petxarroman eta Arantazu Zugasti
- KONTZERTUA
- 22:30 BIZARDUNAK eta VENDETTA (8€ Aurretik / 10€ takilan)

# Abenduak 6 - EGITARAUA

## ARETO NAGUSIA 06

INAUGURAZIO EKITALDIA

### 12:00 'Nire kera zurearen palian dao'

Azokaren inaugurazio ekitaldia. Euskal kultura eta ijito kultura batzen dituen fusio ikuskizuna egongo da. Bertsoak, musika eta txalaparta uztartuko dira. Amets Arzallus eta Arkaitz Estiballesekin, besteak beste.

LIBURU AURKEZPENAK

- 13:30 'Zazpi ebidentzia birjaiotzarako' // Xabier Amuriza (LANKU)
- 14:00 'Al mal tiempo buena arcada' // Iban Gorriti eta Pablo Salgado (BANIZU NIZUKE)
- 14:30 'Euskal Herriko Eskualdeak + 15 urteren ondoren' (ENA)
- 15:00 'Euskararen Herriaren konstituzioa' // Urtzi Iñiguez Sainz (LEMURIA)
- 15:30 'Al son del punk' // Josu Trueba eta Pablo Salgado (BANIZU NIZUKE)
- 16:00 '1512: Konkistaren ondorioak. Consecuencias de la Conquista' // Angel Rekalde eta Joseba Asiron (TXERTOA ETA NABARRALDE)
- 16:30 'Eguberria' // Marta Casares, Juan Kruz Igerabide eta Elena Odriozola (NEREA ARGITALEKUA)
- 17:00 'El caso vasco: el desarrollo humano sostenible' // Juan Jose Ibarretxe (OVEJA NEGRA)
- 17:30 'Finlandiera Euskara Hiztegia' // Joseba Ossa (EUSKAL HERRIA FINLANDIA ELKARTEA ETA SUOMI ELKARTEA)

HITZALDIA (ORDITZAK: GUDAREN 75. URTEURRENA)

### 18:00 'Eguna-ren egunak' HIZLARIA: Xabier Altzibar

## SAGUGANBARA 06

### SAGUGANBARA ARETO NAGUSIAN

IKUSKIZUNA ETA AURKEZPEN-A

- 12:00 'Sentitu, pentsatu, ekin!', Pirritx, Porrotx eta Marimotots 'Sentitu, pentsatu, ekin!' DISKO SINFONIKOA
- 'Zazpikoloroa' DVD-A
- 'Zazpikoloroa' eta 'Maite zaitut' IPUINAK
- FILM EMANALDIA
- 13:30 'Zineuskadi: Zinema Euskaraz' 'Horton', Jimmy Hayward eta Steve Martino 'Marmaduke', Tom Dey
- LIBURU AURKEZPEN-A
- 17:00 'Alboka bildumako hiru album ilustratu' (4-7 urte) 'Ai, ai, ai', Yolanda Arrieta (idazlea) eta Ainara Azpiazu (ilustratzailea) 'Gaua balkoian', Leire Bilbao (idazlea) eta Eider Eibar (ilustratzailea) 'Sekretuaren zaporea', Ana Urkiza (idazlea) eta Concetta Probanza (ilustratzailea)
- LIBURU AURKEZPEN-A
- 18:30 'Nur eta dortoken uhartea' (8-12 urte) Toti Martinez de Lezea (KREIN)

### SAGUGANBARA HALLEAN

KULTURA DONBIDATUA

- 15:30 Ijitoen tailerrak: txapak, margoak... (adin guztientzat)

## SZENATOKIA 06

### ANTZERKI MARATOIA EMANALDI BAKARRA Umeentzako antzerkiak

- 12:00 'Eingo al deu amets?' Ttak Antzerki Taldea
- 12:30 'Papo Pupa' Hipo ta Tomax
- 13:00 'Zapata gorriak' Patata Tropikala
- 13:30 'Boli bili boli' Txontxongilo ikuskizuna Pantzart
- 14:00 'Txarlestrop' Zirika Zirkus

### GAUEAN ARGI

- 20:30 Argizaiola saria emango zaio Benito Lertxundiri Gerediaga elkarte. Ekitaldia Jon Maiak zuzendua izango da.



## AISIALDIA &gt;

auzorik auzo




Gereaa auzoa, Mallabia.



Longa inguruak.



San Adrian parrokia.



Gereako iturria.

# Oizen magalean parrokia propiodun auzoa, Gereaa

Mallabiko Gereaa auzoa eremu aldapatsuan dago, Oizen magalean, eta aisialdian mendiaz gozatzeko aukera emateaz gain, parrokia propioa du

**O**iz mendiaren magalean dago Mallabiko Gereaa auzoa, eta Artaiz izenez ere ezaguna da. Artibai arroaren hasieran dago, eta Ziortzako barrutiarekin egiten du muga. Eremu aldapatsu hori 30 baserriketa hainbat eraikin berrik osatzen dute.

Oiz mendiaren magalean egoteak aisialdian mendiaz gozatzeko aukera asko eskaintzen ditu. Bertatik Oiz gailurre-ra igotzeko bidea gogorra bada ere, Gereaa eta Trabakua bitarteko zelai lauetan zehar ibiltzeko aukera ere badago. Perretxiko garaian, jendez betetzen da inguru hori.

Mendi ibilbideez gain, zenbait eraikin historikoz gozatzeko aukera eskaintzen du Gereaa. Auzo txikietan ohikoa ez den arren, Gereaa parrokia propioa

du: San Adrian parrokia, XIV. mendekoa. Historian zehar aldaketak asko izan ditu, Ziortzako kolegiatako parte izan zen hasie-

Gereaa parrokia propioa du: San Adrian parrokia, XIV. mendekoa

Aisialdian mendiaz gozatzeko aukera asko eskaintzen ditu

ra batean. Ondoren, ermitatik parrokia izatera pasatu zen Ziortzako kalonjeak eta Gereako biztanleek egindako akordio baten ondorioz. Eraikin erlijiosoak, kanposantua, bataio-harria eta sakramentu santua izan behar zituen parrokia bilakatzeko. Oraindik ikusgai daude horiek guztiak.

San Adrian egunean, inguruetako bizilagunek, umeak parrokoarengana erosten zituzten, hark bedeinkazioa eman ziezaian. Oraindino ere, berba egiteko arazoak dituzten edo oinez berandu hasten diren umeak parrokiara erosten dituzte, Justo Azagirre bertako bizilagunak adierazi digunez.

Nahiz eta gaur egun itxita egon, Gereaa auzo-eskola izan zuen. Zabalik egon zen 1973. urtera arte, baina Mallabiako

eskola berria sortu zenean, auzo-eskolak itxi zituzten. Gaur egun, Gereako auzo-eskola zena txoko bezala erabiltzen dute.

Auzoko jaiak ekainean izaten dira, San Adrian egunean. Meza santua, dantzariak, herri kirolak eta bertsolariak egoten dira ikusgai. Beñat Ugartetxea bertsolaria bertakoa da, eta hantxe aritzen da bertotan, beste bertsolariaren batekin. "Asto-probak ere ezin dira falta jaietan", Justo Azagirreraren esanetan.

Gerearraren Longa jenerala ere. Napoleonen kontra borrokatu zen gerrilari hori, eta frantsesen aurkako Independentzia Gerran irabazlea izan zen. Longa Nagusia baserrian jaio zen 1783an, eta gaur egun nekazaritza-turismo etxea dugu bertan.

Hamaika kontu Oiz inguruetan gozatzeko. ■ Ane Elordi

laguntzaileak



# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

Saldu / Erosi  
Errentan eman / Errentan hartu  
Lan eskariak / Lan eskaintzak  
Galdut / Aurkitu  
Eman / Hartu

Eguazteneko 17:00ak arte  
jasotako iragarkiak bariku  
horretako alean  
argitaratuko ditugu.  
Beranduago jasotakoak  
hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Erregistratu zaituzte, [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).  
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23  
**Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.**

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### SALDU

**Asturias.** Bi pisuko etxea eta lur saila. 649 40 26 22

**Cuzcurrieta.** Pisua salgai Errioxan. Hiru logela, garajea eta igerilekua eta lorategia komunitarioak. Prezioa: 100.000 euro. 692 99 43 51

**Almeria.** 80m2 ditu. 2 logela handi, komun bat, balkoi bat, sukaldia eskegitokiarekin. Hondartzatik gertu. 110.000 euro. 608 19 73 17

**Berriz.** Olakueta auzoan. 3 logela handi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldia. Komun bi. 685 72 46 90 / 675 71 23 69

**Berriz.** 3 logela, 2 komun, sukaldia berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. 647 77 73 92

**Durango.** 86 m2 ditu, Murruta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin, ganbara eta garajea. 270.000 euro. 688 64 26 43

**Durango.** Askatasun etorbidean. 83m2 erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajeraino. 652 75 54 46

**Elorrio.** Erdigunean eta estreinatutako. 77m2, 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariek. 230.000 euro. Tel.: 634 45 72 01

**Garai.** Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m2-ko lursaila. San migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, frutalak. Nekazaritza ekologikorako aproposa. Bifamiliarra egiteko baimena. 639 833 489

**Iurreta.** Arriaundin. 66.000 euro. 685 72 80 42.

**Mallabia.** 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldia eta egongela. 112m2 azalera erakitua. Tel.: 695 77 31 41

**Otxandio.** Apartamentua salgai. Trastelekua eta igogailuarekin. Tel.: 675 71 72 83

**Zigoitia.** Etxeak 12 urte ditu eta oso egoera onean dago. Sukaldia (13m2) eta bi komunak guztiz ekipatuta, hiru logela, tximiniadun txokoa, beiratedun terraza (28m2) eta egongela (30m2) ditu. Partzelak 850m2 ditu. Gara-

jean bi kotxe sartzen dira. Tel.: 693243712

#### ERRENTAN EMAN

**Donostia.** Lokal moduko etxebizitza alokagai Antiguauzoan. Lagun bat edo bintzako egokitua, bi planta dauka. 500 euro. 609 48 11 24.

**Durango.** Logela alokagai. 630 76 18 28 (arratsalde).

**Durango.** Erdigunean logela biko etxea alokagai. Guztiz berritua. Tel.: 695 78 75 35

**Elorrio.** 3 logela, altzariz jantzia. Bizitzeko prest. 500 euro. Tel.: 94 658 20 18

**Elorrio.** Apartamentua alokagai herrigunean: logela bat, sukaldia-egongela eta bainugela ditu. Tel.: 94 682 04 38 (gauetz).

**Iurreta.** Logela alokagai. 200 euro, gastuak aparte. Tel.: 633 23 38 48 (Jon)

**Zaldibar.** Erdialdean, guztiz berritua, jantzi barik, 2 logela. Tel.: 660 45 87 56

#### ERRENTAN HARTU

**Durango.** Bikotekide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durangon. Ekonomikoa. Tel.: 632 37 28 87

**Elorrio.** Pisu baten bila nabil alokatzeko, 3 logelarekin eta altzariek. Tel.: 94 658 21 91

#### OPORRETAO ETXEA

##### ERRENTAN EMAN

**Santo domingo de la calzada.** Pisu berria alokagai herri erdian. Ezkaritak hurbil. Denboraldietarako. 2-4 pertsonentzako. 657 772 613

**Bastida.** Torre-Otxandi urbanizazio pribatua. Urbanizazio igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldia eta egongela, guztiz apainduta. Tel.: 620629245.

**Mallabia.** Landetxea. 4 logela, 4 komun, sukaldia eta egongela beheto suarekin. Tel.: 94317 00 09

#### PISUA KONPARTITU

##### PISUKIDE BILA

**Berriz.** Gela bat alokatzen da. Tel.: 662 92 69 11

**Durango.** Pisu baten bila gailtzan bi lagun gara. Hizkun-

tsa Eskola aurrean dago pisua. Tel.: 679 62 04 47

**Durango.** Logela bat alokatzen dut. Madalenoste kalean. Tel.: 650 73 87 24

**Durango.** Bi pertsona 3. baten bila Tabiran behe pisu bat konpartitzeko. 3 logela, 2 komun. Tel.: 637 29 24 65

#### LOKALAK

##### SALDU

**Berriz.** Martxan dagoen burdindegia salgai, erretiroa dela-eta. Tel.: 94 682 44 89 // 687 632 338

**Durango.** 25 m2-ko erakuntza berriko lonja. Bulego baterako edo komertziorako aproposa. Gutxienez bi logela dituen etxebizitza batengatik aldatzen dut. 688 81 85 92

**Gasteiz.** Azken erabilera: Tailer mekanikoa. IBI lizentzia du. Bulegoko altzariek eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonen moldatua. Alokatzeari ere posible da: 800euro/hil. 665 757 807

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** 65 m2-ko lokal komertzial egokitua. Madalena zonaldean. Tel.: 609 15 92 45 edo 655 24 03 27

**Elorrio.** 170m ko lokal erdigunean alokagai. 4 eskaparte handiak, autobus geltokiaren ondoan. 606390099

#### GARAJEAK

##### SALDU

**Durango.** Fray Juan de Zumarraga kalean, 8m2-ko trasteroa alokatu edo saltzen da. Tel.: 629 41 94 11

**Durango.** Durangon partzela bat salgai, Antso Estegiz kalean. Motorretarako eta atoiarako. 666 33 35 72

**Elorrio.** Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Tel.: 658 75 92 64.

**Elorrio.** Garaje itxia salgai erdialdean. 660 45 87 56.

**Otxandio.** Bi garaje salgai, bat itxia. Tel.: 675 71 72 83

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garajea alokagai. Askatasun etorbidea, 35. 50euroan. Tel.: 675 71 95 54

**Durango.** Erdigunean, Ezkurdin inguruan kokatuta dagoen garajea errentan. Tel.: 629 24 07 23

**Durango.** Garaje itxia errentan, erdigunean kokatua. Tel.: 629 24 07 23

**Durango.** Murrutatorre auzoan garajea alokatzen dugu 60 euroan. Tel.: 679 31 00 83

**Elorrio.** Garajea alokagai. Kiroldegiko lehen solairuan. 40 euro hilean. 94 623 14 02

#### ERRENTAN HARTU

##### LURSAILAK

##### SALDU

**Abadi-o.** Lursaila salgai Mattienan, Arzubia kalean, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Tel.: 658 75 65 12.

**Bernedo.** Lursail eraikigarria Urturin salgai dago. Gasteizetik 40km-tara dago. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Tel.: 665 757 807 (ana)

**Durango.** Partzela bat saltzen da etxea egiteko zentroan Ezkurdiko plazatik 200 metrora. Tel.: 652 75 54 46

**Zaldibar.** 13.500m2-ko lur saila salgai. Argia eta ura partzelan bertan. Oso eguzkitsua. Tel.: 629 41 43 63

**Zeanuri.** 2.000 metro koadro dituzten hiru lur sail eraikigarri dira, Ipinaburu auzoan. Tel.: 650 86 39 99.

#### Teknologia

##### AUDIOA

##### SALDU

**Musika ekipoa salgai.** Eclerc mac 90 nahasketa mahai salgai, prezioa 150 euro. Yamaha cdx 397 cd irakugailua salgai, prezioa 50 euro. Technics ekualizagailua 50 euroan salgai. 606 26 62 44

#### GAINERAKOAK

##### SALDU

**Mendirako GPSa.** Garmin oregon 550t, kamaraz guztiz, oso gutxitan erabilia, dendetan 350 euro. 629 81 88 14

#### EMAN

**Bidali zure ordenagailua Boliviara edo Perura.** Ordenagailua hondatuta badaukazu, nik jaso, konpondu eta

Kainaberaren bitartez bialduko dugu bigarren mailako eskoletara. Tel.: 655 71 76 66.

#### Lana/negozioak

##### LAN ESKARIAK

##### ETXEO LANAK

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan, lorezaintzan, baserrietan ere aritzeko prest. Tel.: 622 47 39 41 // 632 37 28 87

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua lan bila, 09:00etatik 14:00etara. Zaintzan zein garbiketan. 632 72 43 23

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durango.** Emakume euskalduna eta esperientziaduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 699 74 57 23

**Durango.** Haurrak zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. Haur txikiak esperientzia daukat. Kotxe propioa. 628614034

**Durango.** Emakume edo neska euskaldun baten bila gabiltza umeak ikastolara eroan eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 653 01 20 11

**Durango.** Garbiketan, ume zein pertsona nagusien zaintzan edo ostalaritzan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Egunez. Tel.: 600 055 117

**Durango.** Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. Tel.: 678 230 266

**Elorrio.** Durangaldean haurrak zaintzeko prest, esperientziarekin. Tel.: 657 775 437 (Yanire)

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak ditut eta udalokutan lanean esperientzia dut. Arratsalde haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Tel.: 688 64 06 04

**Durangaldea.** Asteburuetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 22 urte ditut eta arretoa soziosanitariario ikasten ari naiz. Tel.: 622 937 286

**Durangaldea.** Neska euskalduna haurrak zaindu edota partikularrek emateko prest. Tel.: 661 37 85 29

**Durangaldea.** Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. Tel.: 632 51 68 61

Tel.: 632 51 68 61

**Durangaldea.** Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska euskalduna umeak zaintzeko lan bila. 625 70 78 31

**Durangaldea.** Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez edo gauetz. Erreferentziarekin. Tel.: 616 78 80 33 Luz Adilia.

**Durangaldea.** Neska arduratsua eta erreferentziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauetz. Tel.: 608 24 85 54

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Edozein ordu eta egunetan. Tel.: 660 87 53 60

**Durangaldea.** Lan bila garbiketan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Tel.: 680 29 66 76

**Durangaldea.** Umeen zaintzan, dendari lez, hostelertzan, ... Tel.: 672 69 91 52

**Durangaldea.** Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 602 12 22 45

**Durangaldea.** Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. Tel.: 631 02 29 82

**Durangaldea.** Emakume euskalduna Durangaldean eta egunean bi-hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Tel.: 618 40 58 79

**Durangaldea.** Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. 631 24 26 07

**Durangaldea.** Orduka zein gauetz pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 633 93 41 06

**Durangaldea.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. Asteburu edo asteegunetan. Tel.: 652 72 02 29

**Durangaldea.** Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 690 68 73 95

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 644 63 51 45

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko

**Berbaro Elkarrekin lanaldi osorako kudeatzailea behar du.**

**Interesatuak CVa bidali behar dute abenduaren 14rako berbaro@berbaro.com helbidera. Informazio gehiago:**

**www.berbaro.com**

lan bila. Tel.: 631 02 29 32

**Durangaldea.** 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 602 12 22 45

**Durangaldea.** Garbiketan, umeak, nagusiak zaintzeko lan bila. 652 13 00 41

**Durangaldea.** 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. Tel.: 631 25 09 98

**Durangaldea.** 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. Tel.: 679 53 01 60

**Durangaldea.** Nagusiak zein umeak zaintzeko edota garbiketarako prest. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel.: 620 82 85 79

**Durangaldea.** Esperientziadun neska lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketarako lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Tel.: 632 05 16 65

**Durangaldea.** Emakume arduratsua arratsaldetan zein gauetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. 696 75 35 30

**Durangaldea.** Emakume arduratsua arratsaldetan zein gauetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. 696 75 35 30

**Durangaldea.** 24 orduz pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Tel.: 602 12 22 45

#### IRAKASKUNTZA

**Durango.** Irakaskuntzan esperientziadun gazte euskaldun diplomaturak, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrek emateko prest. Telefonoa: 675 007 919

**Durango.** Irakasle euskalduna, Magisteritzan diplomaturak, klase partikularrek emateko prest. Lehen Hezkuntzan eta DBHn. 618 06 87 49.

**Durango.** Ingelesko eskola

"BODEGUILLA"  
  
TRAÑA-MATIENA  
Tfnoa. 94 681 43 85

Arribe  
Liburudenda  
Kolebarria, z/g - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Betikoak  
flexografia  
ofizinarako zigiluak  
fotolitoak  
Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA  
Tel.: 94 620 22 41

BILBAO ASEGURUAK  
Jabier Rueda  
Grupo CATALANA OCCIDENTE  
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

# anboto.iragarkilaburrrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

**Saldu / Erosi**  
Errentan eman / Errentan hartu  
Lan eskariak / Lan eskaintzak  
Galdu / Aurkitu  
Eman / Hartu

**Eguazteneko 17:00ak arte**  
jasotako iragarkiak bariku  
horretako alean  
argitaratuko ditugu.  
Beranduago jasotakoak  
hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Erregistratu zaitetz, [www.anboto.iragarkilaburrrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).  
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23  
**Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabilzailak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.**

partikularrak emateko prest Durangon. Hizkuntza Eskola-ko tituludun irakaslea. Tel.: 637 29 24 65

**Durango.** Gaztelera eta literatura azterketarako klaseak: DBH, batxilergoa, selektibitate, erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloak. Tel.: 656 79 15 99.

